

# Elgoibartarren Esanetan

Jabi Leon



Elgoibarko Udala  
Ayuntamiento de Elgoibar

Gure herriaren memoria historikoa  
berreskuratzeko oharrak

# Elgoibartarren Esanetan

Jabi Leon

**Gure herriaren memoria historikoa  
berreskuratzeko oharrak**

Argitalpena: Elgoibarko Udala  
Itzulpena: Elgoibarko Udaleko Euskara Saila  
Aipuak Elgoibarko hizkerara egokitzea: Jesus Mari Makazaga  
Azaleko marrazkia: Yulen Zabaleta  
Maketazioa eta Diseinua: Jabi Leon  
Inprimatzailea: Debape. Elgoibar

ISBN:  
Lege gordailua:

*Nire familiari,  
Nire lagunei,  
Elgoibartar guztiei.*

## Aurkezpena



2003 urteko San Bartolome jaietan eta gure herriko Kultur Etxean, "Elgoibartarren Esanetan" proiektuaren ondorioak aurkeztu zituztenean zer sentitu nuen esatea zaila egiten zait. Proiektuan parte hartu zuten adineko pertsona asko bertaratu ziren ekitaldira, eta benetan hunkigarria eta aberasgarria izan zen. Egia esan, oso harro sentitu nintzen haien gaztaroko bizipenak entzutean, une hartan ulertu ahal izan bainuen -bizi-modu gogorra eduki arren- lanarekiko, familiarekiko nahiz herriarekiko maitasuna euren bizitzen ardatz bihurtu zuten aiton-amonen oinordeko ginela.

Kontuan izan beharko genuke, gure aiton-amonei zor diegula garen guztia. Gai izan dira dagoeneko barneratuta ditugun hizkuntza, kultura eta ohiturak guri transmititzeko. Orain, liburuan jasotzen den legez, guri dagokigu haien ereduari jarraipena ematea, gure ondarea landu eta errespetatzea, elgoibartar belaunaldi berriek euren sustraiak, gure sustraiak, zeintzuk diren jakin ahal izan dezaten.

Azkenik, ezin aurkezpen honi bukaera eman, elgoibartar guztiak liburu hori irakurtzera animatu gabe. Liburu honek, duela 70 edo 80 urteko garaia garamatza. Zalantzarik gabe, sasoi hartan jarri zituzten gure aiton-amonek gaur egun guztiok ezagutzen dugun herriaren oinarriak.

Alkatea:

M<sup>a</sup> Victoria Aguirregomezcorta

# AURKIBIDEA

Aurkezpena

I. Atala	Jaiotze lekua eta familia	1
II. Atala	Egun arrunt bat	5
III. Atala	Eskola	11
IV. Atala	Lagun artean	17
V. Atala	Pareja bila	25
VI. Atala	Euskara	29
VII. Atala	Kirola	33
VIII. Atala	Jaiak	43
IX. Atala	Kultura	51
X. Atala	Jana eta edana	63
XI. Atala	Janzkera eta irudi pertsonala	69
XII. Atala	Erljioa	73

Esker ona eta bibliografia 85

Protagonistak

## Sarrera

Lan honen bidez, ezagutzera eman nahi ditugu, “Elgoibartarren Esanetan” izeneko programaren barruan, herriko aiton-amonei egindako elkarrizketen ondorioz garrantzitsuenak.

Esan beharra dago, liburu hau Elgoibarko Udalak bultzatutako dokumentazio eta ikerketa lan baten ondorioa dela. Lan honen helburua elgoibartarrei (batez ere belaunaldi gazteeni), XX. mendearen hasieratik erdi aldera arte, Elgoibar nolakoa zen ezagutaraztea, eta herriari buruzko ikuspegi orokorra ematea izan da. Ez dugu, bada, xehetasun xumeetan galdu nahi izan. Aitzitik, Elgoibarko herriaren eta bertako auzotarren ikuspegi orokorra eman nahi izan dugu.

Elgoibartarrek nola ospatzen zituzten jaiak, zerk kezkatzen zituen, zer zaletasun zuten, zer nolako garrantzia zuen erlijioak euren bizimoduan, zein zen euren ogibidea... Galdera hauek, eta beste batzuek ere, erantzuna izango dute hurrengo orrialdeetan. Azken finean, gure herriaren oroipen historikoaren zati bat berreskuratzen saiatu gara, eta horren guztiaren oinarri garai haiek bizi izan zituztenen testigantzak izan dira.



## I. Jaiotze lekua eta familia

XX. mendearen hasieran, jaiotze lekua erabakigarria izaten zen elgoibartarren bizimoduaren. Baserritarren eta kaletarren bizimoduaren arteko aldea erabatekoa zen. Alde edo ezberdintasun hori are handiagoa izaten zen haurtzaroan.

Honako hau zen ezberdintasun hori azaltzeko arrazoirik nagusienetakoa: sasoi hartan leku batetik bestera joateko oso aukera gutxi zegoela. Hortaz, kaleko neska-mutikoak etengabe aldatzen ari zen ingurune batean hazten ziren bitartean, baserri auzoetan bizi zirenak, ordea, apenas ez ziren konturatzen, industria loratzen zen neurrian, herrian gertatzen ziren aldaketek. Gaur egun harrigarria iruditzen bazaigu ere, baserri auzoetako umeak ia ez ziren auzotik irteten, eta egun berezietan bakarrik, Trinitate jaietan, San Bartolomeetan edo gainontzeko egun handi batzuetan esaterako, etortzen ziren herrira. Adibidez, Aste Santuko prozesio edo Gabon Zaharretako feria egunetan ez zuten hutsik egiten. Izan ere, ez kaletarrak, ez baserritarrak ez ziren jai haiek galtzeko prest egoten.

*“Oingo gaztiak goizago hasten dira eskolan, kaliaz dabiz danak, lagunak kaliaz... ta libreago dira. Soltuaguak dabiz. Guk ez gendun San Lorentzotik ertetzen, inõra. Ez zauan oin bezela autorik, ezta bizikletarik... oiñez jun bihar zan danera.”*

**Joxe Gurrutxaga Lizarralde**

Kaleko eta baserri auzoetako haurren arteko beste alde bat honakoa zen: kaleko neska-mutiek denbora asko izaten zutela lagunekin jolasteko. Baserri auzoetako bizilagunek, aldiz, oso gazterik hasi behar izaten zuten baserriko lanetan laguntzen, eta ia ez zuten jolasteko astirik izaten. Zalantzarik gabe, oso bestela ulertzen zuten haur kaletarrek eta baserritarrek aisialdi hitza.

*“Elgoibarko kalietan bizi giñanok, umetan denpora asko ibiltzen giñan kaliaz. Besterik ez zauan ta deporte asko egitten gendun. Mendira edo bizikletan ibiltzera juten giñan. Oingo gaztiak nahikua diru manejatzen dabe, baiña guk bat ez. Txakur haundi bi kostatzen zaban ziniak, ta erriala izaten zan pagia... Ia zelan konpontzen giñan gu!”*

**Ramon Maiztegi Iriarte**

Gure herri inguruko herri guztietan gertatzen zen bezala, Elgoibarren ere, XX. mende hasierako hamarkadetan, familiak dezente handiak izaten ziren. Sasoi hartan, ez zen inor harritzen, herriko etxe eta baserrietan hamar lagunetik gora bizi baziren. Etxean, oso ohikoa izaten zen gurasoak eta seme-alabak ez ezik, aiton-amonaren bat eta osaba ezkongaberen bat ere bertan bizi izatea.

*“San Lorentzoko Armaite Behekoa basarrixan hamaika anai-arreba bizi giñan gurasuekin. Ni nitzan hamargarrena... Lehen aiton-amonak ere hantxe bizi izan ziran”.*

**Juliana Zubizarreta Gurrutxaga.**

Familia oso handia baldin bazen, baserriak edo etxeak, handiak izanda ere, txiki gelditzen ziren familiako kide guztiak bertan hartzeko. Beraz, gehienetan, anai-arrebek logela eta ohe berean egin behar izaten zuten lo. Normalean sexu bereko anaiek edo ahizpek egiten zuten lo elkarrekin. Normalean nagusienak hurrengoarekin egiten zuen lo, horrela, nagusienetik hasi eta txikieneraino.

*“Gu guztira hamaika anai-arreba izan gera, eta lo egiteko orduan bi oheko habittaziuak baldin baziran etxian, lau sartzen giñan bakoitzian, gitxienez biñaka”.*

**Markos Arregi Iriondo**



Juliana Zubizarreta, senarra eta lehenengo bost seme-alabak Aldapa baserriaren sarreran. 1942 urtea.

Baserrietan, ia beti egoten zen norbait etxean; horregatik, oso baserritar gutxi ixten zuen etxeko atea kanpora joaten zenean. Are gehiago, baserri askotan ez zegoen sarrailarik, eta “trankia” izeneko egur edo burdin zati batekin ixten zuten sarrerako atea.

*“Maiorta basarrixan ez genduan atia giltzakikin ixten ertetzerakuan, ezta pentsatu ere! Orduan ijitto asko ibiltzen zan, baiña guk ez genduan iñoiz ixten. Giltz bakarren batzuk egongo ziran orduan. Itxi egitten zan atariko atia, eta gero zakan burdiñ bat hatzaparrakin atia zabaltzeko ibiltzen zana. Burdiñ hori zulo baten sartzen zan. Trankia esaten zitzaion”.*

**Mariano Elustondo Aizpiri**

Herritarrek, ordea, gehienetan itxi egiten zuten etxea, batez ere, Gerra Zibiletik aurrera. Sasoi hartan, Elgoibar herri txikia zen. Bertan denek ezagutzen zuten elkar. Baina gerrak jende berria ekarri zuen herrira, eta ondorioz, elkarrenganako mesfidantza areagotu egin zen. Etxeak giltzaz ixteko joera orokor bihurtu zen gerra ostean, espainiar estatuko beste hainbat lekutatik jende andana handia etorri baitzen, sasoi hartan hazten ari zen erremintamakinaren industrian eta eraikuntzan lan egiteko.

*“Guk tabernia gendukan San Inazio kalian (gaur egun Trenbide kalia), eta beti egoten zan familixako baten bat bertan. Hala ere, ertetzerakoan beti ibiltzen gendun giltza”.*

**M<sup>a</sup> Rosa Unzueta Iriondo**





Joxe Gurrutxaga eta bere familia, Urkiri baserrian, 1930 urte aldera.

## II. Egun arrunt bat

Mende hasieran, Elgoibarko familietan erabat zehaztuta zegoen bertako kide bakoitzak zein zeregin bete behar zuen. Baserri auzoetan ohikoena zen etxeko gizona goizeko seiak aldera jaikitzea, baserriko lanak egiten hasteko. Bazkaria eguerdiko hamabiak inguruan izaten zen. Bazkal ostean, derrigorrezkoa zen siesta egitea. Eta ondoren, berriz ere lanera.

Igandea edo jai eguna noiz iritsiko zain egoten zen jendea. Jai eguna izan arren, baserri-tarrak betiko orduan jaikitzen ziren. Kortako lanak egin eta arropak aldatu ondoren, auzoko ermitara joaten ziren, mezatarara. Meza ostean, gizon koadrilak batzen ziren, lagunartean, hamarretakoa egiteko. Tertulia egiten zuten, astean zehar auzoan zer gertatu zen elkarri kon-



Abereak behar-beharrezkoak ziren etxeko lanak egiteko.

tatzeko. Bazkaldu ondoren, egunero bezala, siesta egiten zuten, ohikoa baino luzeagoa. Siestatik jaikitakoan, berriro ere, osteratxo bat egiten zuten kortara eta ortura. Hala ere, beti izaten zuten astia auzokoekin hitz egiteko.

Kalean eta baserrian lan egiten zuten gizonak, oro har, goizeko sei eta erdietan jaikitzen ziren. Askok eta askok kortako lanak egiten zituzten gosaldur aurretik, eta ondoren, lantokira joaten ziren.

Ahal zutenak baserrira itzultzen ziren bazkaltzera, eta itzultzeko denborarik ez zutenek lantegian bertan edo gertuko baserriren batean bazkaltzen zuten. Lan aldia, gutxi gora behera, 10 ordukoa izaten zen. Eguneroko lana bukatu eta gero, etxera itzultzen ziren, orduan ere egoten baitzen zer egina bertan. Lanak amaitu ostean, afaria; eta bederatzia edo hamarretak aldera, ohera.

*“Umetan, udan goizago jaikitzen giñan beti, neguan bildurra edo ganauekin ibiltzeko... astegunetan igual zazpiretarako jaikiko giñan. Gero, ganaua kanpora etara-ta egin da, amak gosarixa preparatzen zaban, gosaldur ta gero aittak esaten zabana egittera kanpora. Guk bazkaltzen gendun hamabixak-hamabitt’erdietarako”.*

**Joxe Gurrutxaga Lizarralde**

Bestalde, kalean bizi ziren elgoibartarrek herriko lantegietan egiten zuten lan. Baserriarrek gertatzen zen bezalaxe, eguneroko bizimodua ez zen batere samurra pertsona haientzat. XX. mendearen hasieran, lan aldia 10 eta 12 ordukoa izaten zen. Gainera, lan baldintzak, askotan, gogorrak izan ohi ziren.

San Pedroko lantegi zaharra izan zen, XIX. mende bukaeran eta XX. mende hasieran, Elgoibarko ekonomiaren eragilerik garrantzitsuenetakoa. “Fábrica Siderúrgica de San Pedro” delakoan, elgoibartar askok egin zuen lan, 1936an, Gerra Zibila zela eta, behin betiko itxi zuten arte.

*“Ni San Pedron, lelengo enpaketatzen egon nitzan. Gero poliki-poliki makiñetan sartu giñan. Azkenian makiñetan lanian ibilli nitzan. 14 urtian ibilli nintzan San Pedroko fabriketan. Gero aitta gaixotu zan, da basarrixan lan asko zauala, ta hementxe geldittu nitzan lanian. Ez nitzan bueltau taillarretara. San Pedron hasi giñanian 11 ordu egitten nittuan lan, goizeko seiretarik arratsaldeko seiretara, eguerdixan ordubete geldittu bazkaltzeko, ta jarraitu. Oporrik ez zauan orduan. Gero nik lagatzerakuan bai, konsegittu zan 9 orduko lana, oporrek eta dana konsegittu ziran azkenerako. Baiña hasieran ezer ez. Astian sei egun lan egin bihar. San Bartolome, San Bartolome Txiki, Gabon eguna ta Natibitate eguna bakarrik jai. Basarriko lana astuna da, baiña han beste izerdirik sekula ez dot bota”.*

### **Markos Arregi Iriondo**

Emakumeen zeregina, etxeari lotuta zegoen, nahita ez. Haien lana zen etxeko zeregin guztiak egitea, eta seme-alaben heziketaz arduratzea. Gehienetan, ortuko lanak ere emakumeak egin behar izaten zituen.



Pakita Ansola, Mauxitxa baserrikoa, eta Maria Ansola, Gorriaga baserrikoa, azoka plazan. 1948 urtea.

*“Etxeko gauza guztixak amak egitten zittuan: sukaldian, ganbaran... Etxekoandria ama zan. Kalera juten zan astian pare bat bider edo... igual azokara bakarrikan. Astua hartu ta ortuko produktua, arrautzak eta... saltzera. Gero, orduan etxerako gauza asko bihar ziran, eta igual kafia, azukria, olixua... danak bihar izaten ziran, ta gauza horrek ekarri. Astuakin juten zan ama, bera bakarrik”.*

### **Joxe Gurrutxaga Lizarralde**

Baserriko andrea gizonarekin batera hasten zen lanean. Bientzako gosaria prestatzen zuen (askotan gizonak lehenengo gosaltzen zuen, eta ondoren, andreak). Gosaldu eta gero, etxea garbitzen eta bazkaria prestatzen hasten zen. Bazkal ostean, sukaldea jaso, eta astirik izanez gero, siesta egiten zuen. Siestak 30-60 minutu iraun ohi zuen. Siestatik jaiki eta gero, emakumeak berriro ekiten zien baserriko lanei, eta afaria prestatzen hasten zen. Ohikoa zen emakumea senarra baino beranduago oheratzea, haien lana ez zen eta bukatzen, sukaldea txukun-txukun utzi arte.



Sotera Zubiaurre eta bere ama, Sotera Garitaonaindia, Usetxe baserriko askan. 1929 urtea.

Horretaz gain, familia bakoitzaren egoera ekonomikoak baldintzatu egiten zuen Elgoibarko neska gazteen etorkizuna. Herriko neska askok, oraindik ere nerabe zirela, gurasoen etxea utzi behar izan zuten, dirudunagoen etxeetara, medikuak edo tailerren jabeak esaterako, zerbitzatzera joateko. Etxeko lanak egiten zituzten: garbitu, lisatu, janariak prestatu... Aldi berean, etxeko jabeen seme-alabak ere zaindu behar izaten zituzten. Horren guztiaren truke janaria, ostatua eta diru-sari txiki bat jasotzen zuten. Bizimodu hura benetan gogorra zen, ez baitzuten ia astirik izaten euren gauzak egiteko. Haietako askok egun bat bakarrik izaten zuten jai bi astetik behin.

*“17 urtekin erten naban estraiñekoz nere basarritik zerbitzera. Olasarte basarrixan izan nitzan. Nere ahizpa hantxe zagan, baiña Movillasen fabrikari kolokau zan eta basarrixa laga zaban. Eta lagatzerakuan ni jun nitzan zerbitzera hara, beste bat topau arte. 18 hila-bete egin nittuan han. Beste bat topau zabenian Aitz-Bizkar basarrira bueltau nitzan. Gero Eibarren zerbitzen egon nitzan gerra denporan. Orbea alkate zanaren etxian egon nitzan, eta 14 duro hilleko irabazten naban. Aberatsak ziran eta fabrika haundixa zauken, Beistegi Hermanos fabrikaren aldamenian. Oso jai egun gutxi izaten nittuan nik orduan, eta kaleko neskeri esaten niuen nik ere nahi nabala kalia ibilli, baiña ezin naban. Eibarren egonda,*

*gerria hasi zan, eta Orbeatarrak bildurrez ibilli ziran, alkate karlista zan señoritua-eta. Aitz Bizkar basarrira bueltau nitzan berriro”.*

### **Ventura Agirregomezkorta Ibarluzea**



Sigma bezalako lantegiak oso esanguratsuak izan ziren gure herriko emakumeak lan munduan sar zitezten.

Ezkondu eta gero, emakume gazte elgoibartarrek, amarenak ziren zereginak egiten zituzten euren etxe berrian: umeak hezi, eta etxeko lanak egin.

Hala ere, emakume guztiak ez zuten bizimodu hura aukeratzen. Industria Elgoibarrera iristearekin batera, emakumeak lan munduan sartzen hasi ziren, eta ondorioz, asko izan ziren Elgoibarko enpresetan lanean jardun zuten emakumeak. "Estarta y Ecenarro" enpresak paper esanguratsua izan zuen, emakume elgoibartarrak kontratatzerako orduan. Behin Gerra Zibila bukatu ondoren, Martin Arrillagaren eta Juan Irustaren eraikinetan zituen lantegiak Olasoko pabilioietara eraman zituen enpresak. 1946 urtetik aurrera, SIGMA markako josteko makinak egiteari ekin zioten bertan. Hamarkada askotan, merkatuaren egoera ona izan zen josteko makinaren sektorearentzat. Horrela bada, emakume elgoibartar asko aritu izan zen eskulanean, enpresa hartako proba-mahaietan eta muntaketa-kateetan.

*"Sigman emakume askok egitten zaban lan, makiñak probatzen, montajian edo lan txikiak egitten, torlojuak lotu eta askatu, adibidez. Igual, gizonetzkuak baiño azkarraguak izango ziran eskuekin".*

### **Juan Lariz Garate**

Kapitulu hau bukatzeko, ezin aipatu gabe utzi, Elgoibarren, mende hasieran, oso ohikoa zela aitona-amonaren bat etxean, familiarekin batera, bizitzea. Sasoian zeuden bitartean, baserriko edo etxeko lanetan laguntzen zuten. Gainera, abestiak, ipuinak eta antzinako sineskizun herrikoiak irakasten zizkieten ilobei. Garai hartan, nagusiekiko errespetua zen gizarteko balorerik preziatuenetarikoa, eta haien esanak beti aintzakotzat hartzen zituzten.

*“Lehen nagusixentzat zagan errespetua askoz handixagua zan gaur baiño. Aittak esaten bazaban zeozer, egiñ egiñ bihar. Ni ez naiz akordatzen amak sekula jo ninduanik, baiña aurpegi serixua jartzen baldin bazaban... errespeto handixa zauan”.*

**Juliana Irizar Goiburu**



Frankoren diktadurapean, agintari ugari etorri zen gure herriko enpresak ikustera. Bisita horien helburua zen erreminta-makina industriak zer nolako garapena zuen ikustea.

### III. Eskola

Aita Agirre plazako eskola zaharrak izan ziren, gure herrian, umeek jasotzen zuten eskola heziketaren erreferentzi ardatz. Hala ere, Elgoibarren bazen eskola gehiago. Izan ere, joan den mendearen hasieran, gure herriko auzo askotan eskola propioa eduki zuten: Sallobente-Ermuaranen, Idotorben (San Pedro), Aiastian (San Migel), eta Altzolan esaterako. Horietaz gain, gogoan izan behar dugu Don Erasmoren eskola, eta Maalako komentua ondoan zegoen mojen eskola.



Aita Agirreko eskola zaharra. XX. mendearen hasieran.

Gaur egun, eskola haurrak hezteko eta gizarteratzeko zutaberik oinarritzkoena baldin bada ere, kontuan izan behar dugu sasoi hartan familia bakoitzaren egoeraren arabera, garrantzia handiagoa edo txikiagoa ematen zitzaiola eskolari. Horrela bada, ekonomikoki hobeto zuden eta kultur maila handiagoa zuten familiek txiki-txikitatik bidaltzen zituzten haurrak eskolara. Eguneroko ogia atera behar zuten etxeetan, berriz, eskola bigarren mailakoa zen. Elgoibarren, XX. mendearen hasieran, haur elgoibartar askok ez zuten irakurtzen ikasi, ezta idazten ere. Baziren beste lehenetasun batzuk etxean, eta eskulana, beti, ongi etorria izaten zen.

*“Ni ez nitzan jun eskolara. Bakarrikan andra zahar batena jun nitzan eta han ikasi naban dotriñia. Besterikan nik ezer ez dakitt. San Lorentzon bazaguan eskolia... gizon txiki bat egon zan maixu, kanpotik etorritakua eta eskolako ganbaran egoten ziran danak, neska koxkorak eta mutil koxkorak, danak alkarrekin”.*

**Juliana Zubizarreta Gurrutxaga**

*IBINAGAKO PEDRO.*

*Jaiotzez ermuarra. 1560an lehenengo udal eskola ireki zen Elgoibarren, eta bera izan zen eskola hartako lehenengo maisua.*



Maialako eskola zaharra. Dagoeneko, desagertuta dago.

*“Hamar urtekin jun nitzan lehenengo aldiz eskolara, hamaika urte arte. Gero esnia kale-  
ra eruaten genduan, bide batez, kalian hasi nitzan Don Erasmoren eskolan. Baiña komul-  
gau nitzanian, kanpora. Don Erasmo zan maixua, eta gaur egun Armueta karnizeria  
dagan tokixan zagan eskolia. Lelengo San Lorentzoko eskolan egon nitzan eta gero  
kalian. Ume mordua juntatzen giñan orduantxe eskolan, 50etik gora bai. Maixua  
Txanbolinen aittita zan, Silivestro Ansola. Dotriña, letzia, idaztia... ikasten gendun hantxe.  
Kontuak eta itxen nik ez naban ikasi. Baserrixan beti egoten zan lana animalixekin, eta etxe-  
ko gaztiena nitzanez, holako txutxerixak nik egitten nittuan. Beste prioridade batzuk zauden  
orduan”.*

### **Mariano Elustondo Aizpiri**

Hala ere, herriko neska-mutilik gehienak, haien haurtzaroko urte batzuetan behinik behin, eskolara joan ziren: batzuek, ozta-ozta, oinarritzko eragiketa matematikoak ikasteko (batu-  
keta, kenketa, biderketa eta zatiketa) lain, edo besterik gabe, irakurtzen eta idazten ikasteko  
lain. Hala ere, gutxi batzuek, lehen ikasketak burutu ondoren, ikasten jarraitzeko aukera izan  
zuten. Hori bai, eskolara joan ziren guztiek erlijio katolikoaren jarraibide oinarritzkoak ikasi  
zituzten.

*“Nik eskola publikuetan ikasi naban Aita Agirre plazan. 14 urtera arte. Publiketan urte  
birekin hasi nitzan, lehenengo parbuluetan eta gero, 6 urterekin, gora. Behian, edifizio ber-  
diñian, parbuluak zaguazen. Gero, 14 urterekin, Eibarrera jun nitzan kontabilidadia ikaste-  
ra. Ordu bete egitten gendun egunian, jun ta etorri egitten gendun. Urte bete edo egongo  
nitzan Eibarren ikasten. Akademia baten ikasten naban. Trenian juten giñan. Orduan  
Eibarrerako biajia 45 zentimo izaten zan: jun eta etorri”.*

### **Rosa Unzueta Iriondo**

*“Eskola publikuetara jun nitzan Aita Agirre plazan. 7 bat urterekin hasiko nitzan ikasten.  
Lehen parbulotan ere egon nitzan hantxe bertan. Saturnino Ciaran izan zan irakaslia;  
horrek bai merezi zabala omenaldixa! Eskolia, ipurdixa garbittu umieri... danetarik egitten  
zaban harek. Gero, Pilar ikastetxia ipiñi zabenian, hara pasau giñan. Orduan duro bat*



*pagau bihar izaten zan. 15 urtera arte egon nitzan Pilarren. Danetarik ikasi gendun hantxe, baiña dotriña zan printzipala. Oso ondo erakutsi ziguen dotriña hantxe”.*

**Ramon Maiztegi Iriarte**



Umeak, opariak eskuetan hartuta, Altzolako eskolaren atarian.

Gure herriko eskoletan, irakaskuntzan jardun zuten ia maisu-maistra guztiak kanpotarrak ziren. Gehienetan, Euskal Herriko hainbat herritatik etortzen ziren. Hala ere, bakarren batzuk espainiar estatuko beste erkidego batzuetatik etorri ziren: Gaztela-Leon, Kantabria edo Asturias, esaterako. Zer esanik ez, gerra ostean, irakaskuntzan erabiltzen zen hizkuntza bakarra gaztelania zen.

*“Aita Agirreko eskoletan Doña Basilia, Doña María, Doña Adelaida eta Doña Priscila izan ziran ezagutu nittuan maestra batzuk. Danak kanpokuak ziran, eta erderaz egitten gendun dana. Euskeraz maestriak ere ez zakixan”.*

**M<sup>a</sup>Josefa Unzueta Iriondo**

Garai hartako eskola dinamikak ez zeukan zer ikusirik gaur egungoarekin. Nahiz eta eskola ordutegia gaur egungoaren antzekoa izan, abuztuan eta Gabonetako nahiz Aste Santuko egun garrantzitsuetan bakarrik izaten zituzten oporrak.



Gelan dagoen Diktadura garaiko ikasle talde baten ohiko irudia.

“Oporrak izaten ziran agostuan edo, baiña ez oin modukuak, hiru hillabetekuak eta hola-  
korik, ez. Hillabete bat edo izango zan. Aste Santuan ere egun bat bakarrik. Ez oingo  
moduan, hamabost egun».

**Joxe Gurrutxaga Lizarralde**



Eskola Publikoetako ikasleak Gernikako Arbola ikustera joan zireneko txangoa. 1933ko uztailearen 15a.

Eskolako irteerak eta txangoak ere bestelakoak izaten ziren. Noiz edo noiz, auzoetako eskola umeek irteeraren bat egiten zuten euren maisu-maistreakin batera. Gehienetan, ondo-ko mendiren batera joaten ziren.

Ikasturte bukaerako txangoa noiz egingo zain egoten ziren Pilar ikastetxeko, eskola publi-koetako, eta noizean behin, Altxolako eskoletako umeak. Txango haietan inoiz ez ziren oso urrutira joaten. Ondarroako hondartzara joan zirenekoa, Gernikako arbola, edo Getariako Juan Sebastian Elkanoren irudia ikusi zituztenekoak maitasun bereziz gogoratzen dituzte garai hartako ikasleek.

*“Altxolako eskoletan egonda eskursioren bat ere egin gendun. Ni gogoratzen naiz, eta istorixa politta daukat gaiñera. Maistriak esan zigun Getarixara jun bihar genduala Elkano ikustera. Etxera etorri, esan naban, eta amak esan zidan ez naukala juterik, erroparik ez*

---

**EZENARRO, BERNARDO.** (1873-1956)

*Irakaslea. 13 urterekin marrazketa lineala eta artistikoa ikasten hasi zen Eibarren. Donostian ikas-  
ketak sakondu ostean, Parisko Arte Akademian amaitu zituen ikasketak, Gipuzkoako Foru Aldundiak  
emandako beka bati esker. Elgoibarrera bueltatzean, Marrazketa Akademiaren ardura hartu zuen.  
1916an Arte eta Lanbide Eskola sortu zuen Elgoibarren. Bertako zuzendari izan zen 78 urterekin jubi-  
latu zen arte. Guztira, 52 urte egin zituen irakaskuntzan. 1952ko ekainaren 29an Udalak omenaldia  
egin zion. 1969an herriko kale bati bere izena jartzea erabaki zuen Udalbatzak. Gaur egun, Lanbide  
Heziketa Institutuak bere izena darama.*



Santa Klarako eskolaren inaugurazioa.

naukalako. Orduan amamak zakazen seme-alabak Argentinan, eta harek noizian behiñ pakete bat bidaltzen zeber bar-kuan erropaz beteta, eta erropa horrek guk ibiltzen genduzen. Eta amamak erro-pia ekarri, probau eta haretzek jantzitta jun nintzan ni Elkano ikustera. Oso pozik gogoratzen det nik egun hori. Ni ez nitzan gauza askotan fijau baiña hara jutiakin nahikua zan, eta Elkanoren estatua nola ikusi naban oso ondo gogoratzen naiz.”

### Markos Arregi Iriondo

Baina ez dago arrosarik arantzarik gabe. Arrazoirik gabe eskolara ez joatea, eskola garaian lagunen artean euskaraz egitea edo biraoak esatea, nahikoa arrazoi izaten ziren zigorra jasotzeko. Batzuetan, ikasleak buru makur uzten zituzten zigor haien ondorioz.

“Eskoletan zigorrak izaten ziran. El Pilarreko eskolan esaten ziguen igual 40 aldiz idazteko egindako faltia: “no debo faltar a clase”, “tengo que estar en silencio en clase”... baiña ez ziguen jotzen.

Horretarako zaguan Don Erasmo, bera bai zala “campeón de campeones”! Harek bai jotzen zittuala ikasliak! Ni ez nitzan ibilli harekin, baiña entzuten zan. Entzunda dakat baten bati esan ziola egitteko 10 aldiz, lurrian etzanda, kurutze bat mingaiñakin”.

### Ramon Maiztegi Iriarte



Ikasle talde bat, irakaslearen ondoan.

## IV. Lagun artean

XX. mendeko lehenengo hamarkadetan, Elgoibar herri txikia zen, eta bertan, 5.000 pertsona inguru bizi ziren. Inguruko herrietan gertatzen zen bezala, ia denek ezagutzen zuten elkar, batez ere, eskola umeek eta herriko koadrila ugariak osatzen zituztenek.

Ikerketa honen lehenengo atalean aipatu dugunez, baserri auzoetako neska-mutilek auzoan egiten zuten ia bizimodu guztia, oso gutxitan joaten baitziren Elgoibarrera edo ondo-ko herrietara. Zer esanik ez, den-denek elkar ezagutzen zuten.

*“Lehen 5.000 lagun inguru izango giñan Elgoibarren, eta adin berdiñeko guztixak ezagutzen gendun alkar”.*

**M<sup>a</sup> Rosa Unzueta Iriondo**



Pilar ikastetxeko ikasleak, eskolako Jaiotzaren ondoan. Gutxi gorabehera 1949 urtea.

Baserri auzoetako umeen eguneroko bizimoduak ez zuen zerikusirik kalean bizi ziren umeenarekin. Izan ere, baserrietan beti lan handia egoten zen, eta horregatik, baserrietarren seme-alabak txiki txikitatik hasi behar izaten ziren baserriko lanetan. Hasieran, lan txikiak eta mandatuak egiten zituzten, baina handik denbora gutxira, baserriko lanei heldu behar izaten zieten. Horiek horrela, argi ikus daiteke baserriko umeek adin bereko kaleko umeek baino denbora gutxiago izaten zutela jolaserako.

*“Basarrixan lan asko zaganian ez zagan astirik klasietara juteko, eta gitxiago jolasian ibiltzeko. Ganaua, behixak, ardixak eta holakuak mendira juten ziran, eta menditik ekarri*

*bihar, harek zuzendu... aittak esaten zaban: zu ardixak ekartzera, zu bestera, eta... ixilik, egittera. Egurrakin ez, eh! Errespetoz».*

**Joxe Gurrutxaga Lizarralde**



Elgoibarko koadrila bat, Aiastia (San Migel) auzoan. 1941 urtea.

Kaleko neska-mutikoez ere ezagutzen zuten elkar. Hori ez da harritzekoa, eskolatik irten ondoren, denbora libre asko izaten zutela kontuan izanez gero. Gehienetan, kalean, lagunekin jolasean igarotzen zituzten ordu haiek. Salto eta korri egiteko jolas ugari egiten zituzten, hala nola, "zaku karrera, pañuelo karrera edo bote-bote". Mendi irteerak ere ohikoak ziren. Herri inguruko mendietara, Morura, Morkaikora edo Kalamuara, joaten ziren; batez ere, eguraldi ona egiten hasten zenean.

*"Mendira asko juten giñan lagunekin: Kalamuara, Karakatera... ta Izarraitzen ere egonda nago, Erlon. Eskolan lagunak egindakuak ibiltzen giñan alkarrekin, auzuan etxe gutxi zagozen, eta ume gutxi. Merixendia hartu, ta San Rokera juten giñan, Azkue-beheko piñadira, oin etxia dago han. Mintxetara juteko bidian zagan hori, ta hantxe asko jolasten genduan. Itsasoko haizia etortzen zala esaten zan. Lehenengo neskak bakarrik ibiltzen giñan. Eskolatik ertetzerakuan ere juten giñan San Rokera jolastera, lagunekin. Edozein momentutan juten giñan. Mendira juten giñanian, han bazkaldu, pixka batian egon, eta buelta egiten gendun".*

**M<sup>a</sup> Josefa Unzueta Iriondo**

Horretaz gain, neska-mutilek bihurrikeria asko egiten zuten. Hala ere, ezin esan zeintzuk ziren bihurriagoak: garai hartako umeak ala gaur egungoak. Hori bai, gazteen artean, oso arrunta zen fruta lapurtzea edo animaliei gaiztakeriak egitea.



Milagrosa ikastetxeko (Maalako eskola zaharra) ikasleek San Isidorako txangoa egin zutenekoa. 1928. Ezkerretik eskuinera: Digna Lasa, Anita Garate, Maritxu Osoro (etzanda), Isabel Garcia y Maria Iriondo.

*"Basarrixetan frutak harrapatzen ibiltzen giñan noizbaitt, ta batzuetan basarritarrak ikusi ta segittu ere. Eta hurrengo egunian izkututzen basarritarraren bildurrez".*

### **Juan Lariz Garate**

Aisialdia igarotzeko beste aukera bat kirola egitea zen. Hala ere, kirola egiteko ohitura, batez ere talde kirolak egitekoa, ez zen joan zen mendearen erdialdera arte orokor bihurtu.

Futboleant eta, aspalditik, elgoibartarren gogokoak izan ziren pilota-jokoetan izan ezik, oso gutxi ziren kirolean jarduten zuten lagun taldeak. Lagun talde haiek bizikletaz osteratxo bat egiteko edo gertuko mendira joateko biltzen ziren.

Uda partean, Elgoibarko lagun-taldeek gehien atsegin zuten gauzetariko bat Deba ibaian bainu bat hartzea zen. Bi tokitan batzen ziren lagunik gehienak: Goiko Errotako presan eta, gaur egun, King-Kong deitzen zaion eraikinaren inguruko sailetan.

*"Udaran ibaira juten giñan baiñua hartzera, Goiko Errota aldera, eta King-Kong etxiaren ondora ere bai. Han zagozen "haitz haundixa" eta "haitz txikixa" esaten ziuena". Harek ibaixan zagozen, King-kong ondoko pasuaren parian. Han ikasi nabari nik igeri egitten. Baiña sasoi hartan, gaur egun baiño ur gehixago zagan eta zikinkerixa gitxixago".*

### **José Gurrutxaga Ondartza**



José Manuel Acosta lagun batzuekin, Elgoibarrera iritsi zen egunean. 1954 urtea.

Baina, Deba ibaia ez ezik, baziren beste hainbat leku bustialdi bat hartzeko egokiak, hala nola, Upai Goitiko presa, Sallobenteko errekatxa eta, nola ez, hondartza.

*"Guk ez zakagun hondartzara juateko ohiturarikan. Errekatxuetan, ixkutuan, baiñatzen giñan, lotsa haundixa ematen zigun-eta. Astixa zakagunian Upai Goitira ere juten giñan".*

**Juliana Zubizarreta Gurrutxaga**

Udaldian, koadrila askok eta askok igandeko atsedenaldia aprobetxatzen zuten gertuen zeuden hondartzetara joateko. Zalantzarik gabe, gertueneko hondartza zelako, gehienak Debara joaten ziren.

Alde batetik bestera joateko zeuden zailtasunak ikusirik, gehienetan, trenez joaten ziren hondartzara, hala ere, baten batzuek nahiago izaten zuten hondartzara bizikletaz joatea.

*"19 urte naukazen lagunekin Debako hondartzara jun nitzan lelengo aldixan. Tomas Astigarragak tallar bat zaukan Maalan, eta bertan, bizikletak alkilatzen zittuan. Arratsalde bateko alkilerrak 2 pezeta kostatzen zaban. Hala, bizikleta batzuk alkilau, eta hondartzara jun giñan. Baiñua hartu, bizikletia bueltau, eta berriz ere, etxera"*

**Joxe Gurrutxaga Lizarralde**

Hala ere, sasoi hartan, hondartzan igarotzen zituzten egunek ez zuten zerikusirik gaur egungoekin. Gehienetan, hondartza tokirik aproposena izaten zen lagunak elkarrekin berriketan aritu, eta batak bestearen berri izateko. Bainu eder bat hartzea, hondarretan jolas egitea, eta berriketan jardutea ziren lagun taldeek hondartzan egiten zituzten gauzarik ohikoenak.



Debako hondartzan hartutako irudia. Zutik: Miguel Ajubita, Prudencio Etxaniz, (...) eta Estanis Azkue. Eserita: Sinfoniano Abascal eta Sebastián Unzilla.

*"Trenian juten giñan hondartzara. Beti egoten zan tren espezial bat ordu bi eta erdixetan, gero, sei eta erdixak zazpirak aldera bueltatzeko. Trenak jendez lepo juten ziran, tren gitxi zagualako jendia juteko. Makiña harek oso poliki juten ziran. Hondartzan etzan pixka batian, baiñua hartu, eta listo"*

### **Eugenio Diego Aranburu**

Izan ere, gure nagusiei ez zitzaien burutik pasa ere egiten eguzkitan etzatea; ezta azala babesten duten kremak edo ukenduak ematea ere. Ez zegoen ohiturarik, ez baterako, ez bes-terako.

*"Batzuetan, ez askotan, hala ere, Debako hondartzara juten giñan; takoidun zapatak eta guzti jantzitta. Orduan ez zan, gaur bezela, eguzkixa hartzen. Egixa esanda, kolore zurixa eruaten zan".*

### **Teodosia Iriondo Garate**

XX. mendeko lehenengo hamarkadetan, jende guztiak ez zuen bere bainujantzia izaten. Horiek horrela, ohikoena zen horrelako jantziak alokatu behar izatea.

*"Bainujantzi gitxi zagan, eta hondartzan bertan bazagan kaseta bat baiñu-jantzixak alkilau eta erropak zaintzeko. Hori 1945 urtian bueltan zan. Alkilerra pagau, eta baiñu-jantzixa bueltautakuan, berriz ere erropak ematen zittuen. Baiñu-jantzixan alkilerra oso merkia zan. Guk, kuadrilla osuak alkilatzen genduan. Oso hanka zabaleko baiñu-jantzixak ziran, oso haundixak, danontzako modukuak izan zeitzezen."*

### **Eugenio Diego Aranburu**

Garai haietako bainujantziek ia gorputz guztia estaltzen zuten. Emakumezkoenak pieza bakarrekoak izaten ziren, ia-ia belaurainokoak. Gizonezkoenak, berriz, gehienetan galtza motzak bezalakoak izaten ziren. Hala ere, gerritik gora kamiseta jantzi behar izaten zuten.

*"Lehengo baiñu-jantzixak telaz edo puntuz egindakuak izaten ziran. Elgoibarren baza-guan belaunetaraiño gona moduko batekin egitten zittuan jersetera bat. Gaiñera, hondartzara albornoza ere eruan bihar zan. Pertxero batzuetan lagatzen genduzen baiñua hartzera juteko, eta uretatik urtendakuan, atzera ere, jantzi. Orduan, alkilau egitten ziran baiñu-jantzixak, baiña guk bazakaguzen guriak".*

### **Unzueta Iriondo ahizpak**

Arropak aldatzeko baziren etxetxo batzuk. Sasoi hartan indarrean zegoen moral tradizionalaren ondorioz, inori ere ez zitzaion burutik pasatzen, une batez ere, gainontzeko pertso-nen aurrean erantztea.

*"Hondartzan bertan, bazagozen erropak aldatzeko erabiltzen ziran kaseta batzuk. Goguan dakat, behiñ, lanian niharduen señoritian izeko batek zelan esan zidan, baiñua hartzen zaban bittartian, kasetia zaintzeko. Berriz ere etorri zanian, bi pezeta zillarrezko eman zidazen".*

### **Ventura Agirregomezkorta Ibarluzea**



Edonola ere, eguraldi ona izan arren, gure nagusiak oso gutxitan joaten ziren kostaldeko hondartzetara.

*"Seme-alabak izan nittuan arte, oso gitxittan jun izan nitzan hondartzara. Negurin egon nitzanian bakarrik, gerra denporan. Baiñua hartzera juden nitzan, baiña ez gaur egun jende gehixenak egitten daban moduan, etzan eta eguzkixa hartzera".*

### **Felisa Bergaretxe Ardanza**

Dena dela, eguneroko eginkizunek ez zuten denbora asko uzten aisialdirako, eta batzuek nahikoa izaten zuten hondartzara urtean behin edo birritan joanda.

*"Guk San Bartolome Txiki eguna aprobetxatzen genduan hondartzara juteko. Egun haretan gizonezkuak lagunekin egitten zezen bazkarixa, eta aitzakixa harekin, Debara juden giñan umiak hartuta. Itsaso ertzian pasiaran egittera juden ginan".*

### **Juliana Irizar Goiburu**

Auzoetan, estimazio handia izaten zuten Herri Kirolek, baita bolo-jokoak ere. Bolo-partidak igandetan izaten ziren, eta batez ere, auzoko jaietan. Nahiz eta Herri Kirolak herritar gehienen gustukoak izan, gutxi batzuk ziren kirol horiek egiten zituztenak. Hala ere, jai egunetan Herri Kirolen erakustaldiak egiten ziren, eta zaletu ugari batzen zen bertan.



Pedro Joxe Artetxe eta lagun batzuk, soldaduskan. Logroño, 1936 urtea.

*"Gure aitta idi-probatan ibiltzen zan. Ta nere anai zaharrena ere bai. Ta harek ikustera juden giñan. Azkoittiraiño ere juden giñan. Hemen, San Lorentzon ere jokutzen ziran probak Gabon Zaharretako ferixa egunian. Basarriko asuntuak... dana gustau. Aizkora eta hortarikuak ikustera ere juden nitzan. Aizkora ta holako gauzak egitten ziran San Lorentzon, plaza nagusi horretan. Eta idi-probak San Migelera bidian, Soarten proba plazia zan. Han zagozen probarako harrixak, eta hantxe jokutzen ziran".*

### **Joxe Gurrutxaga Lizarralde**

Bestalde, auzoetako lagun-taldeak neska-mutilez osatuta egoten ziren, eta hori oso deigarria da. Izan ere, kaletarren lagun-taldeak neskenak edo mutilenak bakarrik izaten ziren. Oso lagun-talde misto gutxi zegoen kaletarren artean. Gainera, auzoetan adin ezberdinetako lagunak elkartzen ziren. Sarri askotan, 10 eta 12 urteko umeek elkarrekin egiten zuten jolas. Hura, ordea, ez zen hain ohikoa kaletarren lagun-taldeetan; normalean, adin bereko umeak elkartzen baitziren. Auzoetan, jende gutxiago bizi zen, eta haien arteko hartu

emana kalekoa baino handiagoa zen; horrela bada, errazagoa zen lagun talde berean adin ezberdinetako neska-mutilak elkartzea. Kaleko lagun-taldeak eskola kideek osatzen zituzten. Haiek osatzeko orduan, oso garrantzitsua izaten zen bakoitza zein kaletan bizi zen kon-tuan izatea.

*"Orduan Elgoibar herri txikixa zan, eta edadeko neska-mutil guztixak ezagutzen gendun alkar. Kuadrillan edade batekuak ibiltzen giñan, jeneralian eskolako lagunak ziran. Neskak eta mutilak ez giñan alkarrekin ibiltzen. Lehengoko mutillak gaurkuak baino ignorantia-guak giñan, ezjakiñak. Oingo gaztiak asko dakixe".*

**Ramon Maiztegi Iriarte**

Koadrila edo lagun-taldean ezaugarri horiek nerabegarora iritsi arte irauten zuten. Sasoi hartan beste gazte batzuekin harremanetan jartzen ziren, eta lagun-taldeak irekiagoak bihurtzen ziren. Horrela, beste sexuko edo adinetako pertsoneri lagun taldean sartzeko bidea egiten zieten. Nerabezaroan hasten ziren erromerietan eta auzoko jaietan ibiltzen. Jendea ezagutzeko aukera aproposa izaten zen.

Soldadutza eta Gerra Zibila inflexio puntu izan ziren mutilen arteko harremanetan. Bi gertakizun haien ondorioz, elgoibartar askok kanpoko jendea ezagutu zuen, eta baita lagun handiak egin ere. Ildo horretatik, elkarrizketatuetako batzuek adierazi dutenez, garai hartan eza-gututako jendea lagun izan dute orain dela gutxi arte. Beste batzuek, ordea, oraindik ere, harreman haiek gordetzen dituzte, herri desberdinetan bizi badira ere.

## V. Bikote bila

Gaur egun gertatzen den legez, duela 80 urte ere, nerabezaroa izaten zen beste sexuko pertsonekin harremanak egiteko unea. Jendea ezagutzeko tokirik onenak, berriz, erromeriak, auzoetako jaiak eta dantzaldiak. Dantzaldi haiek igandero izaten ziren Foruen plazan, Udal Musika Bandaren musikaz lagunduta.

*"Kadrillan neskak eta mutillak batera ibiltzen giñan. Gaur egun nere emaztia dana eta ni San Lorentzoko erromerixan ezagutu gendun alkar. Berandu hasi giñan gu nobixotan, ni 27 urtekin eta nere neskia 17kin. Lau urtian ibilli eta gero ezkondu giñan. Erromerixak izaten ziran neskak eta mutillak juntatzeko lekurik aproposenak. Neskiari lagundu egin bihar izaten zitzakon, ni bezela bestiak ere bai".*

**Mariano Elustondo Aizpiri**

Elkarrizketatutako aiton-amona guztiek adierazi diguten bezala, 14 eta 16 urte bitartean hasten ziren beste sexuko pertsonekin harremanetan. Hala ere, guztien hitzetan, sasoi hartan pertsona bat ezagutu eta haren lagun min egin arterainoko prozesuak ez du zerikusirik gaur egungoarekin. Gauza bat zen pertsona bat ezagutzea, eta beste bat, haren lagun min egitea. Prozesua, halaberrez, askoz luzeagoa zen sasoi hartan. Eta hori normalizat jo dezakegu, batez ere, erlijioak, Elgoibarko gizartean, zer nolako eragina zuen kontuan izanez gero; izan ere, garai hartako nekazal kutsuko gizarteak gogor eusten zien balore eta uste tradizionaliei.

*"Lehen parejakin poliki-poliki jun bihar, ez zan oingo moduan alkarri muxuka eta holan. Horretarako lehen ixkuta egin bihar. Muxu bat edo beste harrapatzen bazan... lapurretan igual».*

**Joxe Gurrutxaga Lizarralde**



Udal Musika Bandak Foruen plazan eskaintzen zuen dantzaldia toki egokia izaten zen bikotea aurkitzeko.

Pozik itzultzen ziren denak etxera, neskaren bat begiz jo, eta harekin dantza egitea lortuz gero; hura zen eta andregaiak aurkitu ahal izateko eman beharreko lehenengo pausua. Baina sasoi hartan, dena oso motel joaten zen. Eguneroko zereginen ondorioz, hurrengo igandera arte ezin izaten zuten pertsona ezagutu berri hura ikusi. Elkar ikusten zutenean, gehienetan, gizona hurbiltzen zen gogoko zuen neskarengana. Elkar ezagutu nahi izanez gero, ausardia izan eta hasierako elkarrizketei ekin behar; hori baitzen harreman bat hasteko modua. Behin baino gehiagotan elkarrekin dantza egitea "zerbait gehiago egon" zitekeenaren seinale zen.

*"Jaixetan dantzan ibiltzen nitzan gazte denporan. Asko gustazen zitzatan. Eta dantza gaizki egitten zaban mutil bat neregana hurbiltzen bazan, ezetz esaten nion, eta beste batena juten nitzan. Nik ondo egitten zabenekin bakarrik nahi nabari dantza egittia. Kamiñerokuan izaten zan dantzia orduan eta oso ondo pasatzen naban.... Nobixo gehixegi izan nittuan nik gazte denporan. Baiña ez nitzan ezkondu. Jeneralian, erromerixetan izaten ziran nobixo kontuak. Gaiñera, karta mordua jasotzen nittuan nik ere".*

**Ventura Agirregomezkorta Ibarluzea**



San Antolineko gazteak, herriko jaietan, bazkari bat egin ondoren. 1935 urteko iraila.

Hala ere, harreman baten oinarriak jarri bezain laster, hasten ziren nerabeen zalantzak: harreman bati ekiteko unea al da? Nire bikote ideala ote da? Oso ohikoa zen gure aitona-amonak euren buruei tankera horretako galderak egitea. Zalantza hauetaz gain, beste batzuk ere izaten zituzten, norberaren interesei zegozkienak, hain zuzen. Honekin, bikotekideen bizilekuari egin nahi diogu erreferentzia. Kontuan izan behar dugu, duela 8 edo 9 hamarkada, oso aukera gutxi zegoela leku batetik bestera joateko. Oso asti gutxi izateaz gain, garai hartako elgoibartarrek ez zuten ez autorik, ez autobusik eskueran, eta askotan, bizikletarik ere ez. Horrela bada, ez da harritzekoa 7 kilometrora edo urrutiago bizi zen pertsona batekin harremanetan jartzerakoan, zalantzak izatea. Izan ere, elkarrekin egon ondoren, mutilak lagundu egin behar izaten zion neskari etxeraino. Horri "neska laguntzia" esaten zioten.

*"Jeneralian neskak eta mutillak ezagutzeko dantzak ziran aproposak, erromerixak. Dantzan hasi, ezagutu, alkarrekin barre pixka bat egiñ, kontuak esan, eta... orduan izaten zan basarrietara neska laguntzia. Gaztetan, 16-18 urterekin edo, hauxe izaten zan: erromerira jun, eta illuntzian, edo goizago, etxera, basarrietara. Inguratzen giñanian, txakurra hurbiltzen zanian ba... neskia etxera, ta buelta».*

**Joxe Gurrutxaga Lizarralde**

Hala ere, guk uste duguna kontuan izan gabe, gure aitonak oso gustura ibiltzen ziren laguntzaile lanetan, hori bai, neska ez zen inoiz ere oso urruti bizi behar. Une haiek bakarrik egoteko aprobetxatzen zituzten; oso gaizki ikusia zegoen eta jende aurrean musukatzea, besarkatzea eta laztantzea. Jendearen arteko esamesak oso ohikoak zirenez, eta guztiek elkar ezagutzen zutenez, mutilak neskari etxera laguntzen zionean, aprobetxatu egiten zuten bakarrik egoteko; jendearen ahotan ibili nahi ez bazuten, behinik behin. Musu sutsu bat eta laztan batzuk nahikoa izaten ziren gazteak etxera pozarren itzultzeko.



Zenbait gazte Altzolako bainuetxearen ondoan dantzan, San Juan jai batzuetan.

*"Neskalagun asko euki nittun nik, denpora gitxi igual ibilli, eh! Jun igual San Migelera, juntau eta gero pentsau: urruti dago etortzeko gabian berandu, ta igual, hurrengo batian juan ez. Hurrenguan beste aldera ere bai berriz. Bastante ligatzen naban nik lehen. Altzolako neskekin gitxi ibiltzen giñan, beste herri eta auzoetako neskekin gehixago. Intimidade billa San Lorentzo aldera juten giñan, edo Mendarora. Ta Mendarotik behera, Deba aldera eta".*

### **Juan Lariz Garate**

Harremanak aurrera egiten bazuen, asteburuetan elkar ikusten hasten ziren, freskagarriren bat hartzeko (bikote elgoibartarren lekurik gogokoena Foruen plazako "Café Amistad" zela-koa zen), Errosario kaleko zinema zaharrera joateko, plazan, Bandaren musikarekin dantza egiteko, edo auzoetako erromerietara joateko.

Beste ildo batetik esan behar, Elgoibarren, ia beti, gizonezkoak bakarrik ibiltzen zirela tabernetan. Euren bikotekideekin ez bazen, behinik behin, emakume koadrilak oso gutxitan joaten ziren tabernetara. Ez zegoen ondo ikusita, emakumea tabernan sartzea (batez ere, bakarrik baldin bazegoen), eta are gutxiago, txikito batzuk hartzea. Gauza berbera gertatzen zen erretzeko ohiturarekin: galdutzat hartzen zuten zigarroa pizten zuen andrea. Eta hori gauza guztiz logikoa zen sasoiko emakumeentzat. "Gizonen kontua zen", eta emakumeek ez zuten ohitura hori hartzen, ezta pentsatu ere!

*"Erre ez neban egitten. Sekula santan nere eskuan ez zan zigarrorik sartu. Eta nere gizonak ezta ere, purua bakarrik. Gu laukotia ibiltzen giñan jeneralian, koñatak eta bixok. Ta harek ere ez zebe erretzen. Neri tabakuaren usaiña ez zitzatan gustatzen".*

### **Juliana Zubizarreta Gurrutxaga**

## VI. Euskara

Aurreko mendearen hasieran, Elgoibarko biztanle gehienak euskaldunak ziren. Jendearen arteko harremanak euskaraz izaten ziren ia beti. Areago, elgoibartar askok eta askok hitz batzuk bakarrik esaten zituzten gaztelaniaz. Zer esanik ez; baserri auzoetan, biztanleen %100ek euskara baino ez zuen erabiltzen jendearekiko harremanetan, bai lagunartean, bai etxean, bai eskolan.

Hori hala izan zen, Gerra Zibilaren etorrera arte. Francoren garaipenaren ondorioz, elgoibartarrek gaztelania erabili behar izan zuten arlo askotan. Beti ere, isunen mehatxupean, jakina. Gerrateak iraun zuen bitartean, kalean gora eta behera ibiltzen ziren militarrek eta Guardia Zibilak izan ziren elgoibartarrak beraiena ez zen hizkuntza bat erabiltzera behartu zituztenak.

*"Gerra aurretik danak egitxen zaben euskeraz Elgoibarren. Nahiz eta liburuak erderaz egon, dana euskeraz. Gerra aurretik kastellano bakarren bat zauan eta haren seme-alabak ensegida ikasten zaben euskeraz. Kalian ikasten zeben segitxuan Guarda Zibilen umiak eta danak, urte bat edo bi pasata, segitxuan. Gerra ostian, proibitxu egin zeben. "Habla en español" esaten zeben. Gerria eta gero, euskeria egitxerik ez zauan. Guk, hala ere, euskeraz egitxen gendun erderaz ez genkigun eta".*

### **Mariano Elustondo Aizpiri**

Poliki-poliki, gaztelania entzuten hasi zen herriko kaleetan. Hala ere, elgoibartarrek ez zioten, inola ere, euren hizkuntza hitz egiteari utzi.

*"Guk euskeraz hitz egitten gendun oin egitten degun bezela. Euskera batuan ez. Guk eziñ egiñ erderaz. Gero, gerria aillegau zanian, "tonto" esaten zeben euskeraz egittiagattik. Eskolan erderaz egitxen zeben, baiña ni eskolara jun ez nitzanez, ezin erderia ikasi".*

### **Juliana Zubizarreta Gurrutxaga**

Eskoletan, derrigorrez, gaztelaniaz hitz egin behar izatearen, eta estatuko hainbat herritatik, Elgoibarko industria hasiberriaren beharrak asetzera zetorren eskulanaren ondorioz, joan zen mendearen erdi aldera, gaztelania hedatuz joan zen herritarren artean.

*"Nik 16 urterekin erderaz ere ez nekixan. Eta Altzolako eskolan euskeraz ere egitten gendun. Hori bai, liburuak erderaz. Doktriñia, berriz, euskeraz ikasi gendun. Dorotea, gure maestriak, euskeraz egitxen zaban beti. Elgoibarren, kalian, ere dana euskeraz egitten zan. Gero konstruziua hasi zanian, galleguak eta etorri ziranian, hasi zan erderia entzuten. Ni 16 urterekin hasi nitzan San Pedroko fabrikan lanian, eta ez nakixan batere erderaz. Eta neri erderaz gehixen erakutsi zidana nire enkargaua izan zan, Santiago Oriá. Gerra garai-xan hemen euskeria guztiz prohibittuta zauan. Euskal izenak ipintzia ere prohibittuta zauan. Baiña guk beti euskeraz egitten gendun etxian".*

### **Markos Arregi Iriondo**

Ez zegoen askatasunik norberak, eguneroko harremanetan, nahi zuen hizkuntza erabiltzeko, eta hura oso nabarmena zen herrian bertan. Elgoibartar asko eta asko zapalduta sentitzen ziren euskaraz hitz egiten zutelako. Ohikoena zen "habla en cristiano" esan, eta gaztelaniaz hitz egitera behartzea. Batzuek ondorio txarragoak ekarri zizkieten irainak jasan zituzten.

*"Guk etxian dana euskeraz egitten gendun, baiña Eibarrera jua nitzanian erderaz ere, etxeko señoritia kastillania zan, Madridekua eta harekin, ba, erderaz egin bihar. Erderaz ez nekixan gehixegi, baiña alkarrekin entenditzeko behintzat bai, beti. Nik sekula ez dot euskeria galdu nahi izan. Txikittatik ikasittako gauzak zenbat eta gehixago, eta nahixago. Koadrillan ere euskeraz egitten gendun, baiña batzutan erderaz ere bai. Francoren garai-xan galleguak "habla en cristiano" eta holakuak esaten ziguen euskeraz egittiagattik, baiña guk euskeraz egitten gendun. Holakuak esaterakuan nik kontestau egitten naban".*

**Ventura Agirregomezkorta Ibarluzea**



"Amor y odio" lanaren antzezpena, Udaletxeko Areto Nagusian, 1918ko San Anton egunean. Ezkerretik eskuinera: Miguel Andonegi, Manuela Zabala, Leoncio Gabilondo, Felisa Arrien, Modesto Arriola, Victoria Gurrutxaga eta Angel Osoro "Mutriku".

Gerratik hasi zen euskararen aldekoen eta aurkakoen arteko banaketa nabaritzen. Horrela bada, baziren herritar batzuk, diktadura urteak igaro ahala, desagertzeko arriskuan zegoen euskararen alde izan zuten jarreragatik, gure aiton-amonek gogoan dituztenak: Angel "Mutriku", Felix Etxeberria "Parapan", Francisco Juaristi, Maite Vallejo edo Lourdes Alberdi, esaterako.

*"Elgoibarren baziran pertsona batzuk euskeraren alde lan egiten zabenak. Angel "Mutriku" zan bat. Haura hill egin zeben. San Lorentzoko frontoian teatruak eta egitten zittuan gaztiek. Hara juten giñan holakuak egitten zittuenian. Beste aldian, euskeraren kontra zaudenak ere baziran kalia. Orduan, baziran falangistak, karlistas esaten gendun, eta horreri beti errespetuakin ibiltzen giñan, erderaz bazakixen, eta pixka bat gehixago ziralakuan, eta gaiñera geroko politikan sartzen ziranak..."*

**Joxe Gurrutxaga Lizarralde**

*"Herrixan ere bazaguan euskeraren alde egitzen zabanik: Vallejonekuak, Félix Etxeberria "Parapan" ere... Baiña nahiz eta euskaldunak izan, gehixenak ixilikan egoten giñan bildurra zagualako".*

**M<sup>a</sup> Josefa Unzueta Iriondo**

Hala ere, elgoibartarrek euskaldun izaten jarraitu zuten, eta euskararen garrak bizirik iraun zuen frankismoaren amaierara arte. Trantsizioarekin batera, euskarak, berriro ere, indarra hartu zuen. Eta ordutik hona, poliki-poliki, euskararen erabilera normalizatzen ari da elgoibartarren artean. Dena dela, oraindik ere lan handia dago egiteko, ahozko euskararen erabilerak, gure herrian, duela 80 edo 90 urtetako maila berreskura dezan.

Beste hizkuntza batzuei dagokienean, oso elgoibartar gutxik izan zuen hizkuntzak ikaste-ko interesa. Gure aiton-amonon artetik oso gutxik dakite ingelesez edo frantsesez hitz egiten. Gainera, gehienek halabeharrez ikasi behar izan zuten. Hau da, gerra hasi zenean, herria utzi eta beste herrialde batzuetara, gehienetan Frantziara, emigratu behar izan baitzuten bizitzen jarraitu ahal izateko. Horrela bada, frantsesa izan zen gure herriko poliglotek ikasi zuten lehenengo hizkuntza. Pilar ikastetxea ireki zutenean, saiatu ziren ikasleen artean beste hizkuntza batzuekiko zaletasuna pizten; ikastetxe hori izan baitzen herrian hizkuntzak, hain zuzen ere frantsesa, irakasten hasi zen lehenengoa.

*"Pilar ikastetxian frantses pixka bat erakutsi ziguen. Nik ez neban hitz egiten gauza haundirik ikasi, baiña irakurtzen bai, nahikua ikasi neban. Uste dot, sasoi hartan, Pilar ikastetxian bakarrik irakasten zittuela beste hizkuntza batzuk".*

**José Gurrutxaga Ondartza**

---

*OSORO, ANGEL.*

*"Angel Mutriku" gaitzizenaz ezagutzen zuten. Gerra sortu zenean, preso hartu eta Hernanin hil zuten. Igeltsero fina eta euskaltzale sutsua. Euskal kultura eta folkloreakin zerikusia zuten guztien bultzatzailea. Aurreskularia, antzerkilaria, baserri auzoetako erromerien antolatzailea. Euskal kantak ere irakasten zituen garai hartan Errosario kalean zegoen Batzokian. Garai hartako "Argia" aldizkarian herriko bost edo sei kolaboratzailek idazten zuten, eta guztien bultzatzaile izan zen Angel Osoro.*



## VII. Kirola

Arestian aipatu dugun legez, futboleak eta, aspalditik, elgoibartarren gogokoak izan ziren pilota-jokoetan izan ezik, oso gutxi ziren kirolean jarduten zuten lagun taldeak. Lagun talde haiek bizikletaz osteratxo bat egiteko edo herritik gertu zegoen mendiren batera joateko biltzen ziren.

*“Bizikletan juten nitzan lanera Eibarrera. Lanerako nakan nik bizikletia. Etxian erosi ziauten orduantxe. Ondarruako itzulixa egitten-eta ere ibiltzen giñan. Gure Bide elkartian dago kuadro bat, 1960 urtekua edo, “Vuelta a Ondarroa” egin gendunian aterata. Elkarteko lagunak juntau giñan”.*

**Ramon Maiztegi Iriarte**



Prudencio Etxaniz, Jose Maria eta Pedro Muguruza Otaño anaiak eta lagun bat bizikletaz osteratxo bat egin aurretik.

Salbuespenak salbuespen, ez zen ohikoa gure herriko gazteak igeriketa edo atletismoa moduko kirolak egiten ikustea.

*“Umetan, Don Antonio Arrillagaren klinikia zagan tokixan ibiltzen giñan antxintxika. Kalia amaitzen dan tokixan lur sail bat zauken, eta Hamaika Gazte izeneko futbol taldea bertara juaten zan entrenatzera. Ni harekin juaten nitzan. Koadrilliak osautako talde bat zan; ez zan, esate baterako, Klub Deportibua bezelako talde bat. Jolas egittera juaten giñan hara. Baiña ez dakitt zergaittik, korrika ibiltzen giñan bi edo hiru lagun batzen giñan han. Goguan daukat nola behiñ lasterketa bat izan zan jaixetan. Lehenengo Errosarixo kaletik juan bihar zan, gero, San Bartolome kaletik. Helmuga plazan zagan. Korrika egitteko alkartu giñen Jesus Egaña, Gabriel Gabilondo (goixan beude) eta Prudencio dalako bat, “Cohete” gaitzizena zaukana. Prudenciok irabazi zauan lasterketia, eta bigarren neu izan nitzan; ondoren, Gabriel eta Jesus Egaña. Danon artian banatu gendun eman ziguen diru apurra; horrela, itxura batian pasau genittuan jaixak”.*

**José Gurrutxaga Ondartza**



Elgoibarko Klub Deportiboaren kros taldeko partaideak, Juan Izagirre "Upai" entrenatzailearen ondoan. 1943 urtea.

Zalantzarik gabe, pilota zen elgoibartarren kirolik gustukoena. Garai hartako gazteek pilota joko ugari praktikatzen zituzten, baina garrantzitsuenak esku pilota partidak izaten ziren.

*“Pelotak erosittakuak izaten genittuan. “Joxe Piku” esaten gendun denda bat zauan. Harek eukitzen zaban, eta pelota bakoitzak bederatzi txakur t’erdi kostatzen zaban, “95 céntimos” erderaz esaten dana. Pelotak eta gauza asko zittuan harek. Eta hantxe pelota bat erosteko dirua eukitzen genduanian, ba... Narruzko pelotak ziran. Bestela, etxian egindakuk. San Bartolome kalian zauan. “Todo a 0,95” zan denda hori”.*

**Joxe Gurrutxaga Lizarralde**



Jende ugari, herriko jaietan, Elgoibarko frontoian pilota partidu bat ikusten. 40ko hamarkada.

Pilotazaleak, egunero-egunero, lana amaitu ondoren, herriko frontoiren batean elkartzen ziren, pilota partidak jokatzeko. Partida haietan nabarmena izaten zen jokalarien arteko lehia. Sarri-sarri, Kamiñerokuako (gaur egun desagertuta dago) eta Sallobente-Ermuaraneko frontoietan jokatzeko ziren pilota partidak. Hala ere, Kalegoengoa (gaur egun Foruen plaza) zen herriko frontoirik garrantzitsuenak.



Gure herrian, idi proben inguruan, jende ugari bildu izan da betidanik.

Koldo Lizarralde etnografoak “Kalegoengo frontoi zaharra. 1751-2003. Elgoibarko pilotari buruzko oharrak” liburuan dioen bezala, “1751n eraikia, ekitaldi askoren topalekua izan da frontoia. Euskal Autonomia Erkidegoan ez da egundaino aurkitu gurea baino frontoi zaharrago baten eraikuntzari buruzko idatzirik. Beraz, molde honetako frontoirik zaharrena dela esan dezakegu”.

Auzoetan, estimazio handia izaten zuten herri kirolek, baita bolo-jokoek ere. Bolo-partidak, batez ere, auzoko jaietan izaten ziren. Nahiz eta herri kirolak herritar gehienek gustukoak izan, gutxi batzuk ziren kirol horiek egiten zituztenak. Hala ere, jaiegunetan herri kirolen erakustaldiak egiten ziren, eta baita bertan zaletu ugari batu ere.

“Neri gehixen gustatzen zitzatana idi-probak izaten ziran. Orduan jende asko batzen zaban idi-probak. Elgoibarren zagan proba-tokixa Soarten, San Migeleko bidian. San Pedroko kruziaren parian zauan. Hau zan itxixa. Eta Plaza Txikian zauan beste bat, irikixa”.

### Markos Arregi Iriondo

Apustuak oso ohikoak ziren. Bakoitzak ahal zuen neurrian jokatzeko zuten, baina



Herri kirolen erakustaldia, Tomas Zubizarreta mediku jaunari egindako omenaldian. 1948 urtea.

behin baino gehiagotan, baten batek gehiegitxo jokatu, eta ezustekoren bat ere hartu izan zuen. Izan ere, antolatzaileek nahiz lehiatzaileek iruzur egiten zuten proba haietariko askotan.

*“Nazio maillako epaille izan nitzan idi-probetan. Herri Kiroletako Gipuzkuako Federazioetik idi-probetara, aizkora txapelketetara... bidaltzen giñuezen. Gogoratzen naiz, behiñ, Azpeitxan, aizkora txapelketa batian, ez niñula parte-hartzaille batek gogobetetzen. Horregatik, honako hau esan nion: “Aizu, ez badozu gogorrigo lan egitten probatik kanpo laga biharko zaittut. Eta neure buruari esaten nion: “Honek kaskarreko bat ematen baditt, K.O. lagako nau! Orduan erabaki naban ez nitzala iñungo probatan berriz ere epaille izango. Gauzak gaizki jua leikezela ikusi naban, eta harezkeroztik, ez naban harekin zerikusirik izan nahi. Tongo ugari izaten zan proba haretan; azpijoko asko izaten zan. Idi-probetan, adibidez, likidoren bat botatzen zebe harrixak jua bihar zaban lurraren gaiñian, azkarrago juateko, edo ez korritzeko. Sasoi hartan oso iruzurgilliak izaten ziran. Honelako gauzak goizaldian edo gabian egitten zittuen”.*

### **José Gurrutxaga Ondartza**

Kirola, gehienetan, gizonezkoen kontua izaten zen. Hala ere emakume elgoibartar batzuk erraketista apartak izan ziren. Horrela bada, gure herria utzi eta Kataluniara eta Madrilera joan ziren erraketan jokatzeria; leku haietan estimazio handia baitzuen emakumezkoen erraketa-jokoak. Idotorbe (San Pedro) auzoan dagoen Arane baserriko Maria eta Juanita Arrillaga Garate ahizpak, Sallobente-Ermuaran auzoko Orraindi baserriko Maria Angeles Txurruka edo auzo bereko Berdun baserriko Felisa Muguruza izan ziren erraketistatik garrantzitsuenetarikoa.

*“Emakumiak ez zaben batere kirolik egitten, ezta pentsau ere. Garai hartako pentsamoldia oso desberdiña zan, eta raketista batzuek izan ezik, emakumiak ez zaben kirolik egitten. Gaur egun, gozamina da”.*

### **José Gurrutxaga Ondartza**

Gure herriko kirol erakundeen eta taldeen artetik "Club Deportivo Elgoibar" da aipagarrienetarikoa. Klub hori 1917 urtean sortu zen, eta mende horren erdialdera arte gure herriko kirolaren erreferentzia puntu bilakatu zen; elkarte horrek antolatzen zituen eta gure herriko kirol jarduera guztiak. Geroago sortu ziren Morkaiko Mendizale Elkarte (1943),



Maria Arrillaga, Arane I.a.  
Bartzelona, 1936.

---

### **MUGERZA JUAN. (1900-1937).**

Korrikalaria izan zen. Entzute handia lortu zuen herriz herri kros lasterketetan. Espainiako txapeldun izan zen 1917 urtetik 1923 urtera bitartean 5.000, 1.500 eta 800 metrotan. Horretaz gain, Espainiako txapeldun izan zen 110 metro hesietan, bai eta taldekako erreleboetan ere. 1920an Anbereseko (Belgika) olinpiadan, 5.000 metroko lasterketan, zortzigarren postuan geratu zen, eta 1.500 metrotan, seigarren. Behobia-Donostia lasterketako lehen edizioa ere berak irabazi zuen. 37 urterekin hil zen, Gerra Zibilean, Mungiako bonbardaketa batean. Bere omenez, Juan Mugerza Memoriale sortu zen 1943 urtean.

Baltasar pilotazaleen elkarte (1958) edo Gure Bide txirrindulari elkarte (1959). Elkarte horiek egindako lan eskuzabalari esker, bultzada handia izan zuen kirolarekiko zaletasunak herritarren artean.



Morkaiko mendiko gutunontziaren inaugurazioa. 1944 urtea.

Ildo honetatik, aipatzekoa da, "Elgoibartarren Esanetan" izeneko programaren barruan elkarrizketatu dugunetarikoa bat, Ramon Maiztegi alegia, izan zela gure herriko elkartegintzaren bultzatzaile nagusienetakoa, bai kirol, bai ekonomia, bai gizarte arloan.

*"Donantes de Sangre, Cooperativa Elgoibarresa, Morkaiko Mendizale Taldea eta Gure Bide elkarteko sortzaillietako bat izan naiz. Baiña guzti horretatik poz gehixen eman didana igual Donantes de Sangre izan da, "humanitariamente" behintzat. 40 urtian egon naiz presidente Donantes de Sangre elkartian. Gure Bide ere 50 urte pasa dittut sozio... Bestalde, Club Deportivo Elgoibarren 10 urte egon nitzan direktibo; 16 urterekin hasi nitzan eta 26rekin laga. Orduan Don Tomás Zubizarreta medikua zan C.D. Elgoibarko presidentea. José Rezola ere izan zan orduantxe. Gero Morkaiko sortu gendun. Lehen Club Deportivo Eibarren geundezan, nola Elgoibarren ez zaguan... eta beti esaten gendun guk: "Horrenbeste kapazidade badakagu guk, ba!". Jose Mari Etxaniz eta Joxe Luis Eizagirre (medikuaren semia) orduan juntau giñan eta... hartu papelak, eibartarrekin alkartu eta... nola orduan mendixa politikia zan, jun giñan gobernadoriana eta esan giñon: "Nosotros pensamos esto y tal..". "Andar como es debido" esan zigun. Guk esan gendun hori garrantizauta zaguala, eta hola sortu gendun Morkaiko 1943 urtian. Lehenengo presidentia Iñaki Konde ipiñi nahi zeben, baiña nola bera kartzelan eta egon zan deskartau egin zeben. Gero, atzetikan errespetatzen zitzakon baiña "oficialmente" ez zan. Ofizialki, Eduardo Agirre izan zan presidentia. Inguruetakoa mendixetara antolatzen genituan erterak".*

**Ramon Maiztegi Iriarte**

Elgoibartarrek ehizean eta arrantzan ere jarduten zuten. Hori bai, gutxi batzuk ziren horretan aritzen zirenak.

Joan den mendearen hasieran, ehiza zaleek herritik gertu zeuden eta igotzeko errazak ziren mendietan jarduten zuten. Ez zuten urruti joateko aukerarik, eta ondorioz, gehienetan, Morun, Kalamuan, Morkaikon, eta nola ez, Karakatetik Irukurutzetarainoko bidean ibiltzen ziren. Gehienetan, usotan eta oilagorretan. Gainera, ikerketa honetako protagonistek diotez, lehen orain baino uso eta oilagor gehiago zegoen inguruko mendietan.

Urteak joan urteak etorri, garraio-bideak agertzearekin batera, elgoibartar ehiza zaleak inguruko probintzietara joaten hasi ziren, batez ere, Nafarroa aldeko mendietara eta Gaztelako landetara.



Joxe Odria eta lagun batzuk, Arraian (Burgos) ehizean ibili ondoren. 1949 urtea.

Arrantzan, berriz, gure herri inguruko erreka-stoetan ibiltzen ziren; bereziki, Sallobente-Ermuaren auzokoan.

*“Arrantzan ere ibilli izan naiz ni. Aittarekin juaten nitzan erreka- barbuak hartzera. Hartu eta gero etxeko fregaderan garbitzen genduzen. Oso goxuak izaten ziran Deba ibaian hartzen genduzen arraiñak”.*

**Ventura Agirregomezkorta Ibarluzea**

Aurreko aipuan irakur daitekeen legez, Deba ibaian ere aritzen ziren arrantzan; eta hori harrigarria da, gaur egun Euskal Herriko ibairik kutsatuenetarikoa dela kontuan hartzen baldin badugu. Hala ere, garai hartan, arrain ugari izaten zen Deba ibaian: hala nola, ezkailuak, barboak, aingirak edo amuarrainak.

*“Ni arrantzan ez nitzan ibiltzen, baiña nere aittak adibidez ez zakixan igerixan, baiña eskailluak hartzen ibiltzen zan Deba ibaixan. Eskailluak hartzen afizionaua zan nere aitta. Eskirolakin hartzen zittuan. Makilla luze bat zan, eta haren puntan telazko sare bat jartzen zaben, koladoria bezalako bat. Eta batzuetan aittakin jun izan nitzan, baiña bestela nik ez nakan afiziorik arrantzarako, ez arrantzarako, ez ehizerako”.*

### **Markos Arregi Iriondo.**

Bestalde, ezin mendizaletasuna bazter utzi, elgoibartar asko eta asko oso mendizaleak baitziren. Hala ere, gure aurrekoek ez zuten mendizaletasuna gaur egun ulertzen dugun moduan hartzen. Guztiek ez zuten mendi gailurrak egitea helburu. Sasoi hartan, mendira denbora-pasa joaten ziren gehienak, familiarekin edo lagunekin lasai-lasai egoteko asmotan. Mendira joatea egunerokotasunetik aldendu eta atse-den hartzeko modu bat zen.

*“Mendira askotan juaten giñan, Mendaroko kobazuluetara eta hola juaten giñan kuadrillan. Jeneralian jaiegunetan juaten giñan, batiz bat, uda partian. Eguna pasatzera juaten nitzan lagunekin, pasiaran”.*

### **Teodosia Iriondo Garate**

Baina, gure nagusientzat betidanik egon dira lotuta mendia eta perretxikoen bilketa. Elgoibartarrak beti izan dira oso perretxiko zaleak.

*“Oso gogoko nauan mendira juatia, perretxikotara. Gai horretan adittua Avelino Larrañaga Susperregi zan. Bergarakua zan, Elgoibarko Pakitarekin zaguan ezkondua. Askotan, hemendik erten eta, Irukurutzetatik zihar, Elosumendiraiño jua izan gara oiñez. Gehixenetan, bi edo hiru lagun alkartzen giñan, batzuetan Kalamuara juateko, bestetan, Morkaikora...”.*

### **Eugenio Diego Aranburu**

*“Perretxiko billa ere juaten giñan asko. Ni Bernabe zanaren lagun haundixa izan naiz. Nik ez nakan afiziorik, mendirako bai, baiña perretxikotarako ez, baiña berarekin juaten nitzan. Gero topau zittuan beste lagun batzuk perretxikotara juateko, eta harekin juaten zan. Eta gu mendira. Jeneralian perretxiko klasikuak hartzen genduzen: urritzak, zizak, ondduak... Bernabe teknikua zan, Aranzadi fundaziuan ere bazaguan, eta horrek asko zakixan ta: “Hau ona ala txarra da?”. Bernaberi eruaten giñuzen”.*

### **Ramon Maiztegi Iriarte**



Hiru-Iturriko iturriaren inaugurazioa. 1948 urtea.

Eta atal hau bukatzeko, berriz ere, elgoibartarrik gehien batzen zituen kirola aipatuko dugu: futbola. Aurreko paragrafoetan aipatu dugun legez, futbola eta pilota-jokoak ziren gure nagusien artean estimaziorik handiena zutenak, hala partaideei nola jarraitzaileei zegokienean.



Desagertutako Lerun futbol zelaiaren inaugurazio ofiziala. 1925eko apirilaren 12a.

*“Beti juaten nitzan Lerunera fubola ikustera. Gero, semiak Elgoibar futbol taldian hasi ziran jokatzten, eta gurasoak sarrerria duan izaten gendun. Ez hori bakarrik, Lerunen leku bat naukan neretzako propio, bertan jartzeko. Garai hartan kirola zaletasuna zan; gaur egun, berriz, negoziXua. Partiduak lagun giruan jokatzten ziran, eta gozamina zan haretara juatea. Batez ere, Eibarren kontrako partiduak izaten ziran berezixak. Sasoi haretako girua oso desberdiña zan, lehiakortasun handixa zaguan, baiña pertsonen arteko laguntasuna izaten zan nagusi”.*

**José Manuel Acosta Calvo**

Arlo honetan ezin utzi aipatu gabe Eibar eta Elgoibar futbol taldeen arteko lehiak. Lehia haiek Lerun futbol zelaian (gaur egun desagertuta dago) izaten ziren. Herrian, partidu egunetan, jai giroa somatzen zen herriko kaleetan. Futbol partiduak larunbat arratsaldeetako lehenengo orduan jokatzten ziren, baina goizetik nabaritzen zen jai giro hura. Halako egunetan eguerdi aldera batzen ziren gizon koadrilak herriko tabernetan. Utzi ezinezkoa izaten zen partidu egunetako txikiteoa. Hala, poliki-poliki, herriko kale nagusienak, batez ere Errosario eta San Bartolome kaleak, jendez betetzen hasten ziren, jai giroak erakarrita. Txikiteoan hasi orduko, entzun ahal izaten ziren herriko taldea animatzeko kantuak. Horiek horrela, auzotar batzuk partidu egunak noiz iritsiko zain egoten ziren, etxeko balkoitik, txikiteoan sortzen zen giroaz gozatzeko. Ondo bazkaldu ondoren, elgoibartarrak ohiko lekue-tan elkartzen ziren futbol zelaira joateko. Une haiek oso bereziak izaten ziren, Lerunera zihoan elgoibartar andanari, trenez etortzen ziren Eibarko futbol taldearen jarraitzaileak gehitzen zitzaizkion eta.



*“Fubola ikustera juaten giñan. Eibarko taldia etortzen bazan jokatzera tren espeziala eta dana jartzen zebeñ. Orduan jende asko juaten zan partido harek ikustera. Benetako girua egoten zan egun haretan. Trenian etortzen ziran, eta basuak lapurtzen ziguezzen tabernatik. Ni akordatzen naiz, bittan bai behintzat juañ izan naizela estaziora, basuak batzera. Treneko orduan egitxen gendun bakarrik lan tabernan. Gero jendia fubolera juaten zan, eta gu ere bai. Bazkalostian izaten zan tren espeziala, hiru t’erdixetan edo. Zarata asko ateratzen zebeñ. Eta partidua amaittu eta gero, domekia bazan, musikia entzutera juaten zian plaza-  
ra. Tren ordura arte musikara juaten zian”.*

### **Unzueta Iriondo ahizpak**

Talde bien jarraitzaileak elkarrekin nahasten ziren futbol zelairako bidean, beti ere, jai giro jatorrean. Hala ere, oso nabarmena izaten zen bi herrien arteko lehia.

Partidua jokatu ondoren, emaitzak baldintzatu egiten zuen zaletu batzuen eta besteen umorea. Futbol zelaitik irtetean, jendearen aurpegira begiratzea besterik ez zegoen zein taldek irabazi zuen jakiteko.

*“Elgoibar eta Eibarren arteko partidua ziranian tabernia beteta egoten zan Elgoibarko eta kanpotik etortzen zan jendiakin. Banderekin eta dana ibiltzen zan jendia. Irabazten zabenian, gaiñera, sekulakuak egitten zittuen kaliañ, fubolistak errezibitzen eta. Famosua izaten zan irabazten zabenian haren etorreria. Galtzen bazaben ixilik, baiña irabazten bazaben sekulako rezibimentua”.*

### **Maria Epelde Arriola**

Gehienetan, gizonezkoak izaten ziren futbol partiduen inguruan sortzen zen jaiñ parte hartzen zutenak. Hala ere, asko ziren giro honekin majo ibiltzen ziren herriko emakumeak, eta ahal zuten guztietan, Lerunera joaten ziren ikuskizun harekin gozatzerä.

*“Neri fubola gustatzen zitzatan, eta Elgoibarko taldeko soziak giñan kuadrillako lagunak. Lehen Elgoibar eta Eibarren arteko partidua izaten ziran, baiña gero harek ixo egin zebeñ goragoko kategorixara. Burruka haundiko partidua izaten ziran harek, eta jende asko etortzen zan ikustera, Eibartik ere bai. Ambiente ona egoten zan, baiña batzuetan hasarratu eta dana egitxen ziran”.*

### **Teodosia Iriondo Garate**

Eta bestela gertatu ezin zitekeenez, Elgoibarko eta Eibarko futbol taldeen arteko partiduetan ez zen pasadizorik falta izaten. Sonatuenetariko bat 1947ko azaroaren 14an gertatu zen, Eibarren, Ipurua futbol zelaia inauguratu zutenean.

*“Euren futbol zelaixa izan aurretik, eibartarrak Elgoibarrera etortzen ziran jokatzera. Gogoan daukat Ipurua inauguratu zebeneko eguna. Egun hartan, Domingo Arrillagak, Eibarko medikuak, kopa bat eman zaban inaugurazio partido haura irabazten zabanarentzat. Partidua Eibar eta Elgoibarko taldiak jokau bihar zebeñ. Eulogio Etxeberriak, orain Bilbon jokatzten dauanaren aittittak, gola sartu zuañ, eta Elgoibarrek irabazi zuañ 2 eta 0. Gu Txankiaren kamioian juañ giñan, Ezkurra txofer zala. Elgoibarkuak irabazi zebenian, kamioian babestu behar izan gendun, eta korrika batian, handik ospa egin, gure kontra harrika hasi ziralako. Han geldittuz gero, hilko giñuezen”.*

### **Eugenio Diego Aranburu**

Edonola ere, joan den mendearen erdialdera arte, kirol jarduerak ez ziren elgoibartarren artean zabaldu, ez behinik behin, taldean egiten zirenak. Dena dela, bada salbuespen bat: futbola. Kirol jarduera honek mende hasieratik izan baitzuen jarraitzaile ugari.



Eibarko Ipurua futbol zelaia inauguratu zeneko partiduan, Elgoibarko Klub Deportiboak aurkeztu zuen hamai-kako titularra. 1947 urteko azaroaren 14a.

*“Baten egin genduan partida Lerunen, Altzolako zaharrak eta gaztiak. Rivero izan zan arbitrua. Elgoibartarra zan, eta Primera Division-eko arbitrua izandakua. Enpatau egin gendun. Etxian jendia hasarratu egin zan, zaharrak eta gaztiak. Hortxe egon zan asuntua; ama, aitta, amama... batzuk gaztien fabore, beste batzuk zaharren fabore... azkenian danak hasarre. Altzolako jende guztia juañ zan ikustera. 1960 urtian edo izango zan partidu hori... Baja mordua, gaiñera, gero, eh! Hurrengo egunean lanera juañ bihar, eta lanera ezin juañ! Partidua kondiziuetan jokau zan; abarkekin jokau bihar zan, bestela, ostikada peligrasuak jo. Gaiñera, elurra egin zauan”.*

### **Juan Lariz Garate**

Telebistaren etorrerak zeresan handia izan zuen kirola jende artean zabaltzeko. Telebista etxeetan sartu zenean, ikusleak kirol ekitaldiz josi zituzten, eta horrela, hainbat kirol modalitate zabaldu zituzten.

## VIII. Jaiak

Joan zen mendean jai ugari ospatzen ziren Elgoibarren: herriko patroien, San Bartolomeren eta San Antonen, omenezkoak, esaterako. Horretaz gain, auzoetako jaiak, eta hainbat egun seinalatutan, Trinitate, San Blas, Santa Ageda egunetan edo elizako beste zenbait jai egunetan egiten zirenak ere oso entzutetsuak izaten ziren.

Baina jai horien guztien artetik "Sanbartolomiak" ziren garrantzitsuenak. Izan ere, industrian ziharduten elgoibartarrek egun horiek iritsi arte itxaron behar izaten zuten hainbeste desiratzen zituzten udako oporrak hartzeko. Opor haiek apenas irauten zuten astebete edo bi, baina inor ez zegoen herriko jairik estimatuenak galtzeko prestatuak.

*“1942 urtian Sigman hasi nitzan lanian. Sasoi haretan, domeketan bakarrik izaten gendun jai. Eta guztira, zazpi edo hamar jai egun urtian. Opor harek abuztuan izaten ziran, San Bartolome jaixetan. Haura zan ilusiua, haura! Oporren bezperan kanpai-jotzia izaten zan, eta diruaren sobria eskuetan bero-bero zeguala, ba... San Bartolome bezperan hartzen genduzen oporrak, eta irailaren bostian bueltatzen giñan lanera. Ordaindu egiten ziguzen oporretako egunak”.*

**Teresa Aginaga Madariaga**



Gure herriko jaietan betidanik egin izan dira dantzarien eta dultzaineroen ekitaldiak.

Joan zen mendearan lehenengo erdialdean, gure herriko jai nagusiek hiru egun irauten zuten: San Bartolome eguna, San Bartolome txiki eguna eta hurrengo eguna.

Gure aiton-amonen "Sanbartolomiak" gureak baino askoz laburragoak ziren arren, asko dira antzinako eta gaur egungo jai egitarauetan errepikatzen diren ekitaldiak: besteak beste, sokamuturra, su artifizialak, Udal Musika Bandaren kontzertua, meza nagusia, esku pilota partidak, txistularien kalejira edo dultzaineroen ekitaldia.

Aipatzekoa da, Gerra Zibila bukatu ondoren, militarren musika bandek garrantzia handia hartu zutela "San Bartolomietako" jai egitarauan.

*“Elgoibarko jai onenak San Bartolomiak ziran. Fama asko zauken. Hasieran 3 edo 4 egun izaten ziran, baiña gero astebetera luzau ziran. San Bartolomietan kanpaiak izaten*

ziran sokamuturra hasi baiño lehen; gero, San Bartolome egunian Bandaren kontzertua izaten zan, eta mezia. Jeneralian, banda militarra etortzen zan orduan, Burgosekua. “De categoria” zan. Profesionalak ziran. Egun guztia instrumentueri begira. Oso giro ona egoten zan txikiteuan. Gaiñera, nola lehen jendiak kantau egitten zaban asko... oingo gaztie ez debe kantatzen. Sokamuturra ere egoten zan, eta enbolauak Plaza Txikixan. Gabian musikia zaguan. Eta tiobibuak, norixia eta hori”.

**Ramon Maiztegi Iriarte**



San Bartolome eguneko prozesioa. 1946 urtea.

“San Bartolome egunian Meza Nagusixa egoten zan lehenengo, eta gero pelota partiduak, luziaguak! Eta partidua amaitzerakuan musikia egoten zan. Baiña ez zan amaitzen sekula. Bi edo hiru partidu ipintzen zittuen eta! Ni partidua ikustera juan naiz, urte askuan. Sokamuturra ere egoten zan goizian. Gu juaten giñan, han zezena eta gu beste puntan. Txiki eguna ez zan gaur modukua. Orduan arratsaldia zan politxa. Lehen gaztiak eta ez ziran juten bazkaltzera, nagusixak bai. Oso giro edarra egoten zan. Kuadrillan beti zaguan xalaren bat eta hantxe monigotiak egitten... Ene! Ze ondo pasatzen gendun! Monje, Eduardo, Santi... harekin danekin barre asko egitten gendun”.

**M<sup>a</sup> Josefa Unzueta Iriondo**

San Bartolomereren ohoretan ospatzen ziren jaietan, Txiki Eguna zen elgoibartarrek gogokoen zutena. Egun hura zen, eta gaur egun ere hala da, gazte elgoibartarren egun handia.

Gehienetan, dultzaineroen dianarekin ekiten zitzaion egunari (urte askotan Lizarrako dultzaineroak etorri izan ziren gure herrira). Diana

bukatu ondoren, sokamuturra izaten zen. Sokamuturraren ostean, aldiz, atsedean hartu eta mahatsa jateko ohitura zegoen. Arratsaldean, berriz, bazen ekitaldi bat utziezinezkoa zena: Aita Agirre plazako zezen enbolatuak.

“Txiki eguna zan San Bartolome jaietatik gehixen gustatzen zitzatana. Gizonak eta emakumiak bakoitza bere aldetik ibiltzen ziran. Gizonezkuak tabernaren batian bazkaltzen zezen, eta gabian, alkartu egitten giñan. Lehen, emakumiok ez gendun bazkaririk egitten, etxian bazkaltzen gendun, eta gero, arratsaldian ertetzen gendun lagunekin. Kalejiran ere ez ziran gizon eta emakumiak alkarrekin juaten. Txiki eguna oso gogoko nauan. Zezena amaittu ostian, koadrillak mahatsa erosten zezen, San Frantzisko iturririxan jarri eta bertan jateko. Egixa esan, koadrilla batzuetan mahats aliak botatzen ziuezen alkarri, baiña ez zan gaur egun bezalakua. Oiñ, ura, ardaua, arrautzak eta iriña”.

**Teresa Aginaga Madariaga**

Etxeko animalien patroï den San Antonio abadearen eguna, hau da, San Anton eguna ere ospatzen zuten elgoibartarrek. Neurri txikiagoan bada ere, gaur egun ere ospatzen da egun hori. Izan ere, urtarilaren 17a gure herriko bigarren patroïaren eguna zen. 1665 urtetik hona, egun hori berezia izan da gure herritarren jai egutegian. Dena dela, gure aiton-amonek ez dute egun hura bereziki gogoratzen. Egund hartan ez zen aparteko gauzarik egoten. Inoiz, sokamuturraren edo feriaren bat egun izan zen, baina elgoibartar gehienentzat “egun hura ia-ia gainontzekoak bezalakoa izaten zen”. Meza Nagusia eta Udal Musika Bandaren kontzertua izan dira aspalditik egun horretako ekitaldirik garrantzitsuenak. Bestalde, badi-rudi, elgoibartarrek, joan den mendearen hasieran, San Anton eguna ospatzeari utzi ziotela.



Udal agintarien desfilea, banda militar bat atzetik dutela. 1958 urteko San Bartolome eguna.

Koldo Lizarralde etnografoak “Festa herrikoiak Elgoibarren” izeneko liburuan dioenaren arabera, *“badi-rudi, zenbait urtetan ez zela ospatu, 1914ko alkateak, San Anton eguna zeterrela eta, udalbatzak berak erabakitako ekintza erlijioso eta profanoak berriz ere hastea proposatu zuen eta”*.

Gure herriko jai ospakizunekin jarraituz, aipatzekoa da Trinitate eguna. Hura hirugarren jaiegunik garrantzitsua zen elgoibartarrentzat. Egund hartan izugarrizko feria antolatzen zen, eta jende asko hurbiltzen zen bertara. Halaber, gure herriko baserritarrak ez ziren egund hura galtzeko prest egoten; izan ere, baserri giroa egund hartako protagonista izaten zen.

*“Trinidad eguna erromerixia izaten zan jaixa baino gehixago. Azkoitti, Deba, Eibar eta beste herrixetatik etortzen zan jende asko egund horretan. Ferixak ziran lehen Trinidadiak. Lehen Errosarixo kalia zan “la calle de la feria”. Madarixak eta saltzen egoten ziran Plazan. Eta Plaza Txikixan erromerixia egitten zan”*.

### **M<sup>a</sup> Rosa Unzueta Iriondo**

Ildo horretatik, ezin aipatu gabe utzi auzoetako jaiak. Sallobente-Ermuaran, Azkue (San Roke), Idotorbe (San Pedro), Aiastia (San Migel), Altzola, Arriaga eta Urruzuno auzoek,

den-denek, zituzten euren jaiak, eta salbuespenik gabe, guztiek izaten zuten harrera ona, auzotarrek, antolatzen ziren ekitaldi guztietan parte hartzen baitzuten.



Garate baserriko Rosa Maria, Maria Angeles eta Maria Luisa Mugerza ahizpak, Iñaxio Alonso eta Joxe Mari Mugerza, Foruen plazan, ganadu feria batean lortutako sariekin.

*“Altzolako jaiak San Juanetan ospatzen ziran lehen, ointxe moduan. San Juan eguna eta San Juan Txiki eguna izaten ziran orduan jai. Jende asko egoten zan orduan Altzolan, dana lepo beteta. Erromerixia egitten zan, eta Mendaro, Altzola eta Elgoibarko jende asko etortzen zan. Oin Elgoibarkuak eta Mendarokuak... danak Eibarrera, baiña lehen ez, lehen Altzolar. Demasa zan. Dana beteta. Dantzia egoten zan, pelota partiduak, sokamuturra ere Txiki egunian. Bi zezen ateratzen zittuezen”.*

#### **Juan Lariz Garate**

Gainera, jaizaleenek herri inguruan antolatzen ziren erromerietara joateko aukera izaten zuten. Maltzagan, Madarixan, Sallobente-Ermuaranen, Idotorben (San Pedro), Aiastian (San Migel), “Kamiñerokuako” frontoian edo Arraten antolatzen ziren erromeriak izaten ziren gure aiton-amonentzat estimatuenak.

*“Hamazazpi bat urte arte auzuan ibiltzen giñan neskak eta mutillak. Gero erromerixia zaganian, edozein tokittara. San Pedrora eta juaten giñan, baiña asko ez. Gehixen bat San Lorentzo, Kurutzeta eta Madarixako erromerixetara juaten giñan”.*

#### **Mariano Elustondo Aizpiri**

Erromeria horien guztien artetik aipagarrienak honakoak ziren: igandero Ermuaran-Sallobente auzoko frontoian egiten zirenak. Sodupetarrak, “Gelatxo” gaitzizenaz ezagunak, izan ziren urte askotan dantzaldi haiek alaitu zituztenak.

*“San Lorentzo auzua oso animaua zan orduan, erromerixa haundixak egitten ziran udako eta neguko domeka guztietan. Frontoian izaten ziran, eta jende asko batzen zan. Gelatxok soiñua jotzen zauan, eta merixendatzen ere jende asko egoten zan. Eta familixakuak giñanez, koiñatari eta amari laguntzen giñon tabernan”.*

#### **Juliana Irizar Goiburu**

Auzoko tabernaren jabeak antolatzen zituen erromeria haiek. Nahikoa zen soinu-jole bat kontratatzea, gazteak, astero-astero, dantza egitera joan zitezen. Bitxikeria gisa, esan deza-kegu dantzarako sarrera 10 zentimo kostatzen zela. Hala ere, mutilek bakarrik ordaintzen zuten, neskek sarrera libre izaten zuten eta.

*“Hemen, Elgoibarren, egitxen zan domekero erromerixia; illunabarrian edo, illuntzixan... Eta Maltzagan ere bai jaiero. Gero, Plazan ere egoten zan, unian-unian, baiña han ez zan jaiero. Musikia eta... egoten zan, eta hantxe, korrua egitxen edo... jendia beti aurrera eta atzera, eta aguazilla zauan bat gogorra, Eugenio zakan izena, eta harek jasotzen zabanian bastoia, jaso ta dio! Laster egitxen zaban korrua! Jende asko egoten zan orduan, kanpotik etorritxakuak ere”.*

### **Pedro Joxe Artetxe Egia**

Sallobente- Ermuaran auzoko Armaitxa Behekoa baserrian jaiou, eta Urruzunoko Aldapa baserrian bizi da, ezkondu zenetik, Juliana Zubizarreta elgoibartarra. Juliana da duela hamarkada batzuetako erromeriak hobekien ezagutzen dituen. Izan ere, bera ibili izan zen, Katalotza lagun zuela, panderoarekin sasoi hartako erromeria ugarietako giroa alaitzen.

*“Beti gustau izan jata trikitixa, eta hamasei urterekin hasi nitzan erromerixetara juaten panderuakin... Lehenengoz, Kurutzeta basarrixan jo naban Katalotzakin. Orduetik, Elgoibar eta inguruetako erromerixa askotan ibilli naiz, baiña panderua jotziagaittik ez naban ezer kobratzen. Soñujoliak, berriz, bai. Leku batzuk aittatziarren, Madarixa, Sallobente, Loiola edo Arrate bezelako erromerixetan ibilli izan naiz panderuakin. Entzundakuakin ikasi dot dakitxen apurra, eta batere entsaiau gabe juaten nitzan jotzera Katalotzakin. Alkar oso ondo ezagutzen gendun, eta ez zauan entsaiau beharrik... Oingo erromerixak diferentziak dira. Lehen bi edo hiru ordutan egoten zan soñujolia eta illuntzen hasten zanian, jaixa amaïttu egitten zan. Oin, berriz, illuntzen danian hasten dira erromerixak”.*

### **Juliana Zubizarreta Gurrutxaga**

Aiastia (San Migel) auzoan ere, astero, izaten zen erromeria. Bertan, Sallobente-Ermuaran auzoan bezalaxe, baserriar asko biltzen ziren. Baserriarrek, dantza egiteko parada ez ezik, Mendarako gozo preziatuak dastatzeko aukera ere izaten zuten erromeria haietan, Mendaroko bizkotxo eta erroskilagilea igandero joaten zen-eta bertara.

Auzoko bi tabernetako jabeek kontratatzen zituzten erromerietarako musikagileak. Auzo honetan ere mutilek bakarrik ordaindu behar izaten zuten sarrera. Hala ere, bazen bitxikeria bat: dantzan egiten ez zuten mutilek ez zuten sarrerarik ordaintzen. Zer esanik ez: neskek ere ez.

Arestian aipatu dugun legez, Idotorbeko (San Pedro) auzotarrek ere bazuten erromeria propioa. Erromeria hura abuztuko bigarren igandean egiten zuten, “Urkiola” baserri- tik gertu zegoen “Santumotz” izeneko paraje batean.

Laburbilduz, argi geratu da jaiak eta erromeriak leku aproposak zirela jendea ezagutu eta beste sexuko pertsonekin harremanetan hasteko. Hala ere kontuan izan, sasoi hartako moral zorrotzaren ondorioz, mugak ondo ezarrita zeudela.

Gaur egun xelebrea iruditzen bazaigu ere, ez zen gauza bera Madarixako edo Maltzagako erromeriarra joatea. Azkoitia edo Azpeitia moduko herrietan morala hain zen zorrotza, non bertako neska-mutilek ezin izaten zuten helduta dantza egin herri haietan antolatutako erro-



Gure herriko kale nagusiak jendez betetzen ziren Musika Bandaren ekitaldiak ikusteko.

merietan. Horrela bada, oso ohikoa zen Azkoitiko eta Azpeitiko gazte koadrilak gure herriko auzo-erromerietara etortzea, batez ere, Sallobente-Ermuaran auzokorra. Eta hori aipagarria da, sasoi hartan, alde batetik bestera oinez joan behar zutela kontuan izaten badugu. Eta garai hartan, erreperiderik ez zegoenez, bide eta bidezidorretatik joan behar izaten zuten mendian barrena.

*“San Isidro egunian Madarixan egoten zan erromerixia. Hiru eguneko jaixak izaten ziran. Orduan, Azkoittixan eta Azpeittixan ez zezen lagatzen agarraua dantzatzen; abadiak ez zaben lagatzen. Eta errespetatzen ez bazaben, egoten ziran Guardia Zibillak, parejia, eta ikusten bazaben agarraua dantzatzen soiñua geldittu egitten zezen. Azkoittixan “el dulce meneo” esaten zaben emakumiak heldutakuari. Horregaittik Azkoittiarrek eta San Lorentzoko erromerixara etortzen ziran, agarrauan dantza eitteko. Akabo bestela!”.*

**Joxe Gurrutxaga Lizarralde**

“Kamiñerokuako” frontoian egiten ziren erromeriak ere herritarren gogokoak izaten ziren. Baina, batez ere Gerra ostean, bertan Goardia Zibil asko egoten zela-eta, jendeak joateari utzi zion.

*“Kamiñerokuan egitzen ziran erromerriak famosuak ziran. Uda aldian egitzen ziran. Hasieran herriko jendia juaten zan, baiña gero Guardia Zibil asko sartzen hasi ziran. Eta nola euskeraz egitzen zan dana, Guardia Zibillak beti gaiñian. Lotsagarrixa zan. Nerekin sekula ez dira sartu, baiña...”.*

**Ramon Maiztegi Iriarte**

Auzoetan ez ezik, herriko kale guztietan ere egiten ziren jaiak. Haien guztien artetik, Errosario kalekoak ziren estimatuena, eta auzokideen partaidetza handiena izaten zutenak. Jai haiek antolatzen zituen batzordeak gogor egiten zuen lan, jaietan ezer falta ez zedin. Horregatik, jai egitarauan denen gustuko ekitaldiak egoten ziren: sokamuturrak, pilota partidak, kalejirak, Meza Nagusia, musika banden ekitaldiak, dianak, erraldoi eta buruhandien kalejirak. Urteren batean, 1919an esaterako, “Errosario” kaleko biztanleek jaien etorrera aprobetxatu zuten, euren kalea “estatu independente” aldarrikatzeko. Hori bai, sasoi hartan alkate zen Antonio Arrillagak baimena eman zien hartarako. Koldo Lizarralde “Festa herrikoikiak Elgoibarren” izeneko liburuan dioen bezala, *“personaia umoristenak eta ezagunak aukeratu ziren; lehendakaria, bokalak, Kaleko Erregina, BMren (Berorren Maiestatea),*



*Gobernadore Militarra, Gobernadore Zibila, zinegotziak, agoazilak, Erreginaren Goardia, zaldun taldea eta Ohoreko Damak”.*

Jai haien inguruan pasadizo ugari gertatzen ziren, eta guztiek bizi-bizirik diraute gure aiton-amonen oroimenean.

*“Errosarixokuak eta San Bartolome kalekuak kontrarixuak ziran. Behiñ, Errosarixoko jaixetan neskazahar bi San Bartolome kale aldera juan ziran kotxian, eta “atentaua” euki zeben. Ez dakitt zer ipiñi ziuen, baiña zeozerekin zaratia atera zeben, eta bat oso nerbiosa jarri zan. Solterak ziran, baiña alegriak. Eta, Aizpirinetikan edo, atera ziuen kopa haundi bat lasaitzeko Plaza erdixan, anisa edo, eta trago baten edan zeben. Itxuria, gustatzen zitzakuen ederki-eta. Gu San Frantzisko kalekuak giñan, eta San Bartolome eta Errosarixoko kaleko jaixetara juaten giñan. Zezena ere egoten zan, eta jai politxak izaten ziran Errosarixoko kalekuak. San Frantzisko kaleko jaixetan ez zaguan ezer, danbolina-edo pasatzen zan, eta listo”.*

### **Teodosia Iriondo Garate**



Musika Bandaren zuzendaria, Julio Pérez Cortés, kalejira baten buru. 1943 urteko Inauteriak.

*“Errosarixoko kaleko jaixetako onena zezena izaten zan. Jende asko ibiltzen zan Errosarixoko kaleko jaixetan. Baiña guk ez gendun nahi zezenik, zergaittikan lehen atiak zabalik egoten ziran. Eta bi bider etorri zan gure etxera, lehenengo pisurairiño zezena. Eta gero buelta eman, eta pareta guztiak kakaztuta, eta garbitzen ibilli bihar”.*

### **M<sup>a</sup> Josefa Unzueta Iriondo**

Eta jaien atala bukatzeko, ezin Inauteriak aipatu gabe utzi. Joan den mendearen hasieran, Inauteriak martitzenean bakarrik ospatzen ziren.

Herrian antolatzen ziren jai handi guztietan gertatzen zen bezala, Inauterietako ekitaldirik garrantzitsuena sokamuturra izaten zen. Hala ere, gure nagusietariko batzuek euren nortasuna mozorroaren azpian ezkutatuta ere gozatzen zuten. Duela ehun urte, oso gutxi ziren festa horretan buru-belarri parte hartzen zuten herritarrak; baina mozorroa janzea erabakitzen zutenek, irudimenari esker, kolore biziz margotzen zituzten herriko kaleak, eta horrela, egun bakar batez izan arren, egunerokotasunari ihes egiten zioten, fantasiako mundu batean murgiltzeko.

*“Elgoibarko Karnabalak asko gustatzen zitzatazen. Gogoratzen naiz urte baten koko jantzi nitzala ni, alemanak bezala. Oso jai sinpatikuak ziran Karnabalak”.*

### **Ventura Agirregomezkorta Ibarluzea**


Inauterietako beste ekitaldi garrantzitsu bat Udaletxeko Pleno Aretoan egiten zen dantzaldia zen. Bertara joateko baldintza bakarra antzinako trajea janzea zen. Asko ziren, urtero, dantzaldi hartara joaten ziren elgoibartarrak (gehienak kaletarrak). Hala eta guztiz ere, Gerra Zibilaren etorrerarekin (1936 urtea), ekitaldi hau bertan behera geratu zen. Martitzen Inauteri egunean ere dantzaldia izaten zen azoka plazan. Diktadurak dantzaldi hori ere indarrik gabe utzi zuen.

## IX. Kultura

Liburu honen sarreran agerian utzi dugunez, lan honen helbururik nagusia izan da, XX. mendearen lehenengo erdi aldean, Elgoibar eta bertako herritarren bizimodua zer nolakoak ziren, oro har, azaltzea. Ez dugu, bada, xehetasun xumeetan galdu nahi izan. Aitzitik, gai zehatz baten inguruko ikuspegi orokorra eman nahi izan dugu. Argi dago atal batzuek, kapi-tulu honek esaterako, liburu oso bat beharko luketela. Hori, ordea, ez litzateke arestian adie-razitako helburuekin bat etorriko.

Herritarren kultura maila da gizarte modernoek lortu duten garapenaren adierazlerik nagusia. Bai erakunde publikoek, bai erakunde pribatuek, gero eta bitarteko gehiago jartzen dituzte Kultura izenaz ezagutzen dugun horren baitan dauden esparruak sustatzeko.

Baina hori ez da beti hala izan. Joan den mendearen lehenengo hamarkadetan, irakurtzea, idaztea, zinemara edo antzerkira joatea, musika kontzertuak entzutea nahiz margotzea, ez ziren ez ohikoak, ez garrantzitsuak gure aitona-amonen bizimoduan. Gainera, sasoi hartan, erakundeek tankera horretako ekitaldiak antolatzeke ematen zuten laguntza ez zen gaur egun ematen dutenaren adinakoa izaten.



Gure herriko kaleetan izaten ziren musika ekitaldiek estimazio handia izaten zuten elgoibartarren artean.

Arestian adierazi dugun legez, egunean zehar zeregin ugari izaten zuten, eta ia ez zitzairen astirik gelditzen gauza haietaz gozatzeko. Halaber, kasurik gehienetan behinik behin, izaten zituzten aisialdi une eskasetan baino ez zuten izaten kulturak ematen duen plazerraz gozatzeko aukera. Horretaz gain, garai haietan gaur egun baino askoz kultur jarduera gutxiago antolatzen ziren, eta jende guztiak ez zuen pelikularen bat, kontzerturen bat edo

antzezlanen bat noizean behin ikusteko, hiriburuetara edo inguruko herri garrantzitsuetara joateko aukerarik. Egoera ekonomikoak ere zerikusia zuen kultur ikuskizunetara joaterako orduan. Gogoan izan behar dugu, urte haietako familiak oso handiak zirela. Etxeko dirua ondo kontatuta zegoenez, ez zen ohikoa "norberaren kapritxoak" egiteko dirua soberan izatea.

Hala ere, elgoibartarrak, ahal zuten guztietan, herrian antolatutako ikuskizunetara joaten ziren. Irakurketa, eta igande arratsaldero, Udal Musika Bandak eskaintzen zuen musika saioa eta dantzaldia izaten ziren gure herritarren kultur ekintzarik garrantzitsuenak. Horiek izan ezik, herriko jaietan eta egun seinalatuetan bakarrik izaten zuten kulturaz gozatzeko aukera.

### ***Irakurketa***

Irakurtzeko ohitura duela zortzi hamarkada edo hasi zen elgoibartarren artean hedatzen. Eskolara joateko ohitura ere sasoi hartan hasi zen gure nagusien artean zabaltzen, nahiz eta eskolara oso denbora gutxirako joaten ziren. Eskolaratzeak bultzada handia eman zion gure herrian irakurzaletasunari.

*"Irakurtzeko jakiñ egin bihar da, eta nik soldadutzia amaittu eta gero ikasi naban pixka bat. Periodikua irakurtzen hasi nitzan orduan".*

**Joxe Odria Osoro**

Jendeak asti gutxi zuen, eta horrek ez zion irakurzaletasunaren zabalkundeari bidea erraztu.

*"Irakurri? Gaztetan astirik ez zagan irakurtzeko, eta gero ez dot izan afiziorik. Lehen ez zan periodikorik basarrixetan. San Lorentzo auzuan hiru etxetara-edo etorriko zan. Argia jaiero hartzen genduan, Gerria allegau zan arte. Euskeraz egitten zan. San Lorentzora etortzen zan Angel Arriola, hil zan, eta berari erosten giñon".*

**Joxe Gurrutxaga Lizarralde**

Urteak joan urteak etorri, gero eta ohikoagoa bilakatu zen elgoibartarren artean egunkariak irakurtzea. Herritar guztiek egunero ale bat erosteko aukerarik izan ez arren, ahal zuten guztiek begiratu on bat botatzen zioten, baldin eta egunkariren bat eskuratzen bazuten. Askotan ez zeukan garrantzirik zein egunkari irakurri behar zen, ezta egunkari hori zein ideologiatakoa zen ere. Halaber, berdin zen zein egunetan argitaratu zen ere. Kontu horiek guztiak txikikeriak ziren.

*"Periodikua ahal zanian irakurtzen naban. "La Voz de Guipúzcoa", "La Gaceta del Norte", "El Liberal"... horrek zagozela akordatzen naiz"*

**Pedro Joxe Artetxe Egia**

Garrantzitsuena zen gure herritik kanpo zer gertatzen ari zen jakitea. Eta jakina, gure herriko etxerik gehienetan, XX. mendearen erdira arte, irratia entzuteko aparailurik eduki ez zutenaz, prentsa idatzia zen informazioa lortzeko bide bakarra.

*"Beti gustau jata asko irakurtzia, eta oiñ ere periodikua egunero irakurtzen dot. Harrapatzen genduan guztixa irakurtzen genduan, zatorrena. Periodikua "La Gaceta del Norte", "El Liberal"..., baiña gurera ez zan allegatzen periodikua".*

#### **Sotera Zubiaurre Garitaonandia**

Edonola ere, sasoi hartan zegoen egunkari kopuruak ez zuen zerikusirik gaur egun dagoen aukerarekin. Gure aiton-amonek gogoan dituzte haietako batzuk: hala nola, "El Diario Vasco", "La Noticia", "El Correo Español", "El Liberal", "Excelsior", "La Gaceta del Norte", "La Voz de España" edo "La Voz de Guipúzcoa". Hala ere, bakoitzak bazituen bere zaletasunak.

*"Ez nakan irakurtzeko astirik. Noizian behiñ txistiak eta holakuak irakurtzen nittuan periodikuan ikusten nittuanian. Orduan "La Voz de España" irakurtzen genduan etxian".*

#### **Felisa Bergaretxe Ardanza**

Ildo horretatik, esan genezake, gaur egun gertatzen den bezala, garai haietan kiroletako informazioak ere bazituela zaletuak.

*"Nik deportiaren inguruan asko irakurri dot beti, "As", "Marca" eta holakuak. "Marca" Gerra denporan atara, eta bixak allegatzen ziran Elgoibarrera. Ni akordatzen naiz illia moztera juten nitzanian, Julian Zakariasek esaten zidala: jahí va Ramon!, lagatzen zidan periodikua, hantxe irakurri, pagau azkenian, eta hurrengo astian pasatzen nitzan. Esaten zidan "periodiku honek basurara bota bihar dittut, eta..." nik hartzen nittuan, eta etxera eruaten nittuan. Hala ba... doble repaso".*

#### **Ramon Maiztegi Iriarte**

*"Irakurri, bastante irakurtzen naban, periodikua ixa egunero, deportia edo pelota-partidua, bizikletia ere gehixen... holakuak irakurtzen nittuan. "La Voz de Guipuzcoa" irakurtzen naban, kalia edo etxian. Aittak gitxittan erosten zaban periodikua. Tabernan beti egoten zan periodikua, eta egunekua okupauta baldin bazauan, aurreko egunekua igual hartu bihar irakurtzeko. Rebistarik ez naban irakurtzen".*

#### **Juan Lariz Garate**

Egunkariak ere ez ziren gaur egun bezala banatzen. Banatzailea ezaguna izaten zen, eta batzuetan, banatzailea bera izaten zen herriko albisteak egiten zituena.

*"Periodikuak saltzen zittuela akordatzen naiz. Paco, Jacinto Salaberria sakristauaren semia, ibiltzen zan. Eta gero izan zan korresponsala ere bai. Periodikuak plazan saltzen zittuan, baiña besuetan hartu eta etxez etxe partitzen ere ibiltzen zan".*

#### **Markos Arregi Iriondo**

Zalantzarik gabe, Paco Salaberria eta Markos Gorostiza izan ziren, gure herrian, kazetari lanak egin zituzten lehenengo elgoibartarrak.

*"La Voz de Guipúzcoa"n herriko kartia egoten zan. Marcos Gorostizak idazten zaban, eta berak "Cosmar" siñatzen zittuan albistiak. Futboleko gauzak Paco Salaberriak idazten*

*zittuan, famosua zan. Donostian zaiñ egoten ziran, ia zer ipintzen zaban Paco Salaberriak. Elgoibarren partiduen gaiñian berak idazten zaban. Baiña sekula ez zan juten partidora. Bialtzen zittuan lagunak eta lehengusuak, eta hala egitten zaban”.*

### **Unzueta Iriondo ahizpak**

Urteak igaro ahala, egunkariak etxez etxe banatu beharrean, merkataritza-establezimenduetan eta herriko tabernetan saltzen hasi ziren, horrela, gaur egun ezagutzen dugun egoerara hurbilduz.

*“Periodikuak saltzen zittuen, Aranburuk saltzen zaban, gaur egun Osoro eta Iriondo Kirolak daguan inguruan zagan tabernan partitzen zittuan”.*

### **Mariano Elustondo Aizpiri**

Aldizkariak ere irakurtzen ziren, baina egunkariak baino askoz gutxiago; oso gutxi eta garestiak baitziren salmenta tokietan aurki zitezkeenak. Horiek horrela, gure aiton-amona gehienek ez dituzte ia gogoratu ere egiten irakurri zituzten estreinako aldizkariak. Aldizkari haietan "denetik" hitz egiten zuten "pixka bat"; eta aldizkari haiek, noizean behin, irakurtzeko aukera izan zutenek gogoan dute zer nolakoa zen aldizkari haien itxura.

*“Blanco y negro” rebistia zagan. Guk ez genduan erosten, baiña goixan medikua bizi zan, eta harek erosten zaban. Eta lagatzen zigun irakurtzeko. Rebista dotoria zan “Blanco y negro”, papel dotoriarekin. Don Antonio medikuarekin etxeak modukuak giñan, aittaren lehengusua zan eta.*

### **Unzueta Iriondo ahizpak**

Bukatzeko, liburuen eta eleberrien irakurketari buruzko gaia aipatuko dugu. Benetan literaturzaleak zirenek baino ez zituzten liburu eta eleberri horiek irakurtzen; izan ere, egun guztia lan eta lan igaro ondoren lur jota geratzen zirenez, oso gutxi ziren irakurtzeko gaitasuna izaten zutenak. Era berean, sasoi hartan indarrean zegoen pentsamoldearen aurka borroka egin behar izaten zuten, alferrikakotzat jotzen baitzuten horretan jardutea.

*“Gazte denporan nobelaren batzuk irakurtzen genduzen. Etxian esaten zaben denporia galtzia zala. Baiña Don Antoniok ekartzen zidazen nobelak, oso polittak”.*

### **Unzueta Iriondo ahizpak**

Irakurleek ere bazituzten euren zaletasunak: batzuek nahiago zituzten liburu didaktikoak; beste batzuek, ordea, entretenimendurako liburuak.

---

ARRILLAGA, ANTONIO (1886 - 1961)

*Mediku eta zirujau ospetsua. 1886ko urtarrilaren 17an jaio zen Arnoate baserrian. Ospitalea jarri zuen san Inazio kalean. Gizon ospetsua, traumatologia arloan ospe handia izan zuen. Horretaz gain Elgoibarko, eta orokorrean, Euskal Herriko historialari eta ikerlari izan zen. Herriko alkate izan zen 1918-20 eta 1924-30 urteen bitartean. Oso kristaua, gizon ona eta lagun hobe, ezagutu dutenek diotenez. Mendizalea eta kirolzalea oso, pilotan ere jokatzen zuen.*

*"Liburuetan erregien kontuak irakurtzen nittuan nik. Sasoi batian mundu guztixak eza-gutzen zittuan erregiak".*

### **Ventura Agirregomezkorta Ibarluzea**

Eta jakina, liburuak erostea luxua zenez, irakurri ahal izateko liburutegietara joan behar izaten zuten. Herriko ikastetxe bakoitzean zeuden liburutegiak alde batera utzita, gaur egun Udaltzaingoa dagoen Udal lokaletan egon zen gure herriko lehenengo liburutegia.

*"Lehen bazaguan liburutegixa Elgoibarren, Udaletxian. Oñ Udaltzaingua dagan tokixan. Eta handik hartzen nittuan nik liburuak. Betiko liburuak zauden han: "Enciclopedia Espasa", ez dakitt zenbat tomo zauden, 60 edo; eta gero, beste liburu batzuk. Nobelak ere bai. Gu juten giñanian ez zan egoten iñor liburuen arduradun, zabaltzen ziguen atia eta... liburu hartu eta irakurri. Liburuak bertan irakurtzeko aukeria zagan. Nik han ez dot ikusi iñoiz jendia liburuak etxera eruaten, irakurtzeko. Oingo liburutegi berrixan bai. Liburutegira gu juten giñan askotan, batez ere, eguraldi txarra zaganian. Historixia eta herrixetako historixak irakurtzen nittuan nik. Gauza bat edo beste bat ikusten ere egoten giñan, "obras de arte" eta holakuak. Baten batek zeozter ikusten baldin bazaban, bestieri erakusten ziuen".*

### **Ramon Maiztegi Iriarte**

Udal liburutegiaz gain, elgoibartarrek bazuten San Bartolome parrokiako liburutegira joateko aukera. Bertan liburu ugari zegoen, baina gehienak erlijio gaiei buruzkoak ziren.

*"Elizan ere bazan biblioteka bat. Elizako liburuak izango ziran danak, baiña bazaguan biblioteka bat han".*

### **Unzueta Iriando ahizpak**

---

### **PEDRO MIGEL URRUZUNO (1844 – 1923)**

*Mendaroko erretore lehenengo, eta bertako Agustinetako kapilau, ondoren. Euskal artikulugile eta olerkari bikaina. Euskal aldizkari askotan argitaratu zituzten haren idatziak, batez ere, haren istorioak edo "Ipuiak". Euskara herrikoi eta errazean idatzita daude. Esamolde ugari erabiltzen ditu, euskaldunen hizkera, arin, bizi eta adierazkorra aberasteko. Aita Villasanteren, esanetan, Urruzunoren "Ipuiak" izeneko obra "euskal literatura herrikoiaren eredu izan beharko litzateke". 1915 urtean, Urruzunoren "Meza Santua zen dan" izeneko liburua, Martin Cochem alemaniarraren idazlan baten itzulpena, argitaratu zen Durangon. Urruzunoren beste lan bat, aita Baudranec-en erlijio lan baten itzulpena alegia, sei garren aldiz argitaratu zen Tolosan, 1921 urtean.*

## ***Musika eta Dantza***

Aspaldidanik, musika eta dantza izan dira elgoibartarren artean sustrairik sakonenak izan dituzten kultura jarduerak. Jaiei eskainitako kapituluan agerian geratu denez, jarduera horiek garrantzia eta estimazio handia zuten gure aiton-amonen artean. Guztiek aprobetxatzen zituzten aukera haiek, sasoi hartan, propio jarritako eskenatokietan musika entzuteko edo dantzarako gaitasuna erakusteko.



Inazio Bereziartuak zuzendutako orkestra. Irudian honako hauek ere agertzen dira: Juanita Zubizarreta, Azpiazu, Epelde, Etxaniz anaiak, Cordero, Salaberria eta beste bat.

*“Musikia asko gustatzen zitzatan. Jaiero juten giñan musikia entzutera plazara. Zinetik zazpirak inguruan ertetzen genduan, eta berehalaxe hasten zan musikia. Elgoibarko Musika Bandiak jotzen zaban, gabeko bederatzirak arte. Giro politta egoten zan jaiero. Dantzan egitten naban, baiña ezkondu ezker ez asko”.*

**Maria Epelde Arriola**

Baina jarduera haiek, hainbat zaleturentzat, aisialdia igarotzeko edo hartzaile gisa egoteko modu bat baino zerbait gehiago ziren. Musika entzuteko zaletasun handiena zutenek musika jotzen ere ikasi nahi zuten, eta horretarako, herriko "maisuek" ematen zituzten eskoletara joaten ziren.

*“Musikia ikasi naban Inazio Bereziartuarekin, urtebete baiño gehixago. Baiña belarririk pittin-pittin ez nakan, eta gero laga egin naban. Bereziartua desesperau egitten zan. Hiru lagun giñan, Luzia Alkorta, Arcadia Gabilondo eta ni. Ez gendukan belarririk ez bata ez bestiak. Batak gaizki eta bestiak gaizkixago. Eta azkenian laga egin genduan gurekin ezin zabalako. Bere etxian ematen zittuan klasiak, Santa Ana kalian. 10 edo 11 bat urte eukiko nittuan nik orduan. Klase partikularrak ziran. Nola klasera jun bihar giñan bazkalorduan izaten ziran klasiak, ordu bata eta erdixetan. Bost miñutuan juten giñan, leziua eman eta hurrengo egunerako... estudixau beste leziua”.*

**M<sup>a</sup> Josefa Unzueta Iriondo**

Beste batzuetan, familiarengandik zetorren tradizioa izaten zen musika ikasteko arrazoi nagusia.



*“Mutrikun jaixo nitzan, eta txikittatik egunero juten nitzan solfeua ikastera. Ahotsa edukatzen ere ikasten genduan. Nere etxian bazaguan pianua, gure amak pianua jotzen zaban eta gure aittak bandan. Gure anai bat abadia zan, eta oso ondo jotzen zaban organua. Gero kubano egin zan, eta han pianoko eskolak eman zittuan”.*

**Nikasi Andonegi Sustaeta**



Joxe Odria, Foruen plazan egin zen dantza solteko txapelketan parte hartu zuten beste batzuekin batera. 1946 urteko San Bartolome jaiak.

Eta, nola ez, baziren gogoko musika-tresna jotzen beraien kabuz ikasi zutenak ere.

*“Nik betidanik izan dot zaletasuna panderua jotzeko. Eta irratixa entzunda asko ikasi naban. Ez nitzan jun sekula panderua jotzen ikastera. Nere kasa ikasi naban. Ama ona nakan, umiak zaintzen zidazen batzuetan, eta ni erromerixetara juten nitzan gizonarekin. Nik panderua jotzen naban, eta gizonak dantza egin”.*

**Juliana Zubizarreta Gurrutxaga**

Musika alde batera utzita, aipatu beharrekoa da, gure herrian, dantza herrikoiek duten garrantzia. Nolanahi ere, Elgoibarko jaietan betidanik izan dute lekua tankera guztietako dantzek.

*“Dantzan ikasi naban. Premixotan eta ibiltzen nitzan dantzan ni Maite Vallejo eta herriko beste lagunekin. Elgoibarko Udaletxeko plazan ere egitten zan, eta dozena bat pareja ateratzen giñan dantzan egittera”.*

**Joxe Odria Osoro**

Horiek horrela, pentsa genezake ia gure aiton-amona guztiek, gehienetan, herriko pilota-lekuetan jarritako dantzalekuetan egingo zituztela dantzako lehenengo urratsak. Dantza kon-tuan ere bakoitzak bere zaletasunak zituen: batzuek nahiago zuten "solteko dantza", beste batzuek, ordea, "lotutakoa".

*"Dantzan gitxi ikasi naban, pixka bat erromerixetan. Lehen musika soltia entzuten zan, trikitixa eta holakuak. Hori zan nik gogoko nauana".*

**Juan Lariz Garate**

### ***Zinema eta Antzerkia***

Elgoibarren jarri zuten lehenengo zinema parrokiako "Zine Zaharra" izan zen. Errosario kalean kokatuta zegoen, gaur egun, Kutxako bulegoak dauden eraikinean. Zine hura martxan jarri izana izugarritzko gertakaria izan zen sasoi haietako elgoibartarrentzat. Ireki eta denbora gutxira, igandeetan aisialdia igarotzeko zegoen aukera nagusia bihurtu zen. Horretaz gain, zinera arratsaldean (16:30 aldean hasten zen) nahiz gauean (21:30 aldean hasten zen) joan zitekeen; horrela gure nagusiek, pelikularen bat ikusteko aukera izaten zuten, dantzara huts egin gabe. Udal Musika Bandak eskaintzen zituen, igandero, dantzaldi haiek.

*"Elgoibarrera etorri nitzanian, zine bakarra zagan, Errosarixo kalekoa. Oso zine korrientia zan, ez zagan tapizautako silloirik, ezta antzekorik ere. Jarlekua bajau, jarri eta nahikua zan. Lagunekin juten nitzan zinera, domeka eta jai egunetan. Gurasuak prest eukitzen zaben afarixa; bestela, arreba edo baten bat kejau egitten zan, ez zabalako lekuri-kan topatzen. Zinia zan danontzat zaganik onena. Ez zagan besterikan".*

**Eugenio Diego Aranburu**

Umea, gaztea, heldua... berdin zen zein adinetakoa izan. Igandeetan, guztiek egiten zituzten zinemara joateko planak. Gaur egun gertatzen den gisa, gazteenak arratsaldeko saiora joaten ziren, eta helduak, gauekora.

*"Ume denporan Errosarixo kaleko zine parrokiara zagan. Zinera jaiero juten giñan. Bi txakur haundi izaten zan sarrerria, eta guri hiru txakur haundi ematen ziguen pagia: bi zine-rako, eta beste bat gastatzeko. Kakahuetiak eta karameluak erosten gastatzen genduan. Juergia egoten zan zinian, mutillak aurrian eta gu atzian egoten giñan, eta oso ondo pasatzen genduan kuadrillan".*

**Unzueta Iriondo ahizpak**

Dena dela, zinemara joatea ez zegoen herritar guztien esku. Zinemara joatea ez zen oso garestia (duela 75 urte, sarrerek 20 edo 30 zentimo inguru balio zuten), hala eta guztiz ere, familia askoren egoera ekonomikoa ez zegoen gauza askotarako.

*"1940 urtian Errosarixo kaleko zinia zagan, Antonio Usabiagak eruaten zaban orduan. Baiña ni ez naiz sekula egon Errosarixo kaleko zine haretan. Orduan ez zan oiñ bezela. Odeoia egin zabenian, batzuetan juten giñan zinera. Baiña lehelengo-lehelengotikan ez".*

**Juliana Irizar Goiburua**

Joan den mendearen lehenengo hamarkadetan zineman ikus zitezkeen filmek ez zuten zerikusirik gaur egun ikus daitezkeen superprodukzioekin. "Estreinaldiak", batzuetan, urteetako atzerapenarekin iristen ziren. Baina berdin zen; garrantzitsuena sasoi hartarako modernoa zen ikuskizuna ikustea baitzen; nahiz eta lehendabiziko filmak zuri beltzekoak ziren, eta gainera, mutuak edo ahotsik gabekoak.

*"Gogoratzen naiz Gerra Zibilla hasi zanian ze pelikula botatzen zittuen. Amerikanuen propagandakuak ziran. Baiña teknikuaguak eta hobeto egindakuak ziran, eta hori gustatzen zitzakun guri. Hala ere, botatzen ziguen dana ikusten genduan".*

### **Eugenio Diego Aranburu**

Eta zinemara joatea gure herritarrentzat berebiziko garrantzia zuen gertaera zenez, haiek inolako eragozpenik gabe gogoratzen dituzte sasoi haietan garrantzitsuak izan ziren pelikulen izenburuak.

*"Elgoibarrera etorri nitzanian Errosarixo kaleko zine zaharrera juten nitzan ni gehixetan. Gogoratzen naiz "Nobleza baturra" izeneko pelikulia ikusi nabala. Bilbon ikusi naban lehenago, eta gustau egin zitzatanez, Elgoibarren ikusi naban berriro. Hiru bidar ikusi naban pelikula hori. "Carmen la de Triana" ere ikusi naban, eta asko gustau zitzatan".*

### **Felisa Bergaretxe Ardanza**

Egia esan, parrokiako zinema zaharrak ezin izan zion Francoren erregimenak inposatutako zentsurari ihes egin. Horrela, elgoibartarrek, eroapen handirik gabe, filmei egindako mozketak jasan behar izaten zituzten. Hala ere, ez zuten atzera egin, eta beraien desadostasuna adierazten hasi ziren gero eta onartezinagoa zen neurri haren aurrean.

*"Nere denporan zine zaharra parrokuak euki zaban, Don Ceferinok. Jendiak protestau egitten zaban laztana allegatzen zanian, pelikulia mozten zabalako. Eta protestak hasi ziranian laga egin bihar izan zion. Neri gustatzen zitzatan jutia, baiña orduan pagia txakur handi bat izaten zan, eta ziniak hiru txakur haundi edo kostatzen zabanez, ba... ez nitzan asko juten. Akordatzen naiz "La mano misteriosa" edo "Las dos niñas de Paris" bezelako pelikulak ikusi nittuala".*

### **Sotera Zubiaurre Garitaonandia**

Bestalde, esan daiteke, Errosario kaleko zinema zaharra hainbatetan erakusketa gela bezala erabili izan zela, baita era askotako hitzaldiak emateko ere.

*"Guk ez gendukan zinera juateko dirurikan, baiña artisten kuadruak eta holakuak ikustera juaten giñan Errosarixo kaleko zinera. Hantxe izaten ziran eta. Baiña barrura ez giñan juaten".*

### **Teodosia Iriondo Garate**

Izan ere, haietako gertakizun bat, pasadizo bat bailitzan, betiko gelditu zen gure aiton-amonen gogoan.

*“Amerikanuen presidentia, Kennedy, hil zabenian, Errosarixo kaleko zinian gengozen, perretxikuen inguruko konferentzixa batian”.*

**Nikasi Andonegi Sustaeta**

Eta bestela izan ezin zitekeenez, aurkitu ahal izango dugu, 80 urtetik gorakoa izanda ere, zinemara behin ere joan ez den elgoibartarren bat.

*“Zinera sekula ez nitzan jun, eta nere lagunak ere ez. Kaleko neskia zaukabenak juten ziran baiña gu, basarritzarrok, ez”.*

**Mariano Elustondo Aizpiri**

Joan den mendearen bigarren erdialdean, Odeón zinema ireki zuten. Hura jauzi kualitativo garrantzitsua izan zen gure herrira iristen ziren ikuskizunen kalitateari zegokionean. Antzerkia eta zartzueta gisako jeneroak gure herriko karteldegian agertzen hasi ziren maiztasun jakin batekin. Elgoibartarrek pozarren hartu zituzten jenero berri horiek. Gainera, une hartako egoera ekonomikoa ona zen, bertako industria gorantz zihoan eta. Horrek eragin handia izan zuen, gure herritarrek konpainia profesionalak eskainitako kultura ikuskizunetara joan zitezten.



Joan den mendearen hasieratik hona, gure herrian izan dira antzerki talde afizionatuak.

*“Odeaira zartzuelak, antzerkixak... etortzen ziran. Ondo zagan Odeoia. Antzerkira ere juten giñan, batez ere, musikia zaganian. Kantante batzuk ere etortzen ziran”.*

**José Gurrutxaga Ondartza**

Pelikulekin gertatzen zen bezalaxe, gure aiton-amonek ondo gogoan dute zeintzuk izan ziren gure herriko eskenatokietan arrakasta handiena izan zuten ikuskizunak.

*“Odeira juten ziran antzerki-konpañiak ikustera juten giñan. Antzerki obra haretatik goguan daukadaz "Las chicas del tren" eta "La tabernera del puerto". Gizona eta bixok normalian Odeón zinera juten giñan, han antzerkixak jartzen zittuelako. Antzerkixa berdin etortzen zan eguastenian edo domekan”.*

### **Teresa Aginaga Madariaga**

Harrigarria da, guk elkarrizketatutako guztiek, aho batez, Elgoibarren eskaini zen ikuski-zunik hoberena "Las chicas del tren" izan zela esatea. Antzezlan hau hainbat astetan (50eko hamarkada) egon zen Odeón zineman programatuta, eta nekez aurkituko genuke antzezlan hura ikusi ez zuen elgoibartarrik.

*"Las Chicas del Tren" ere egon nitzan ikusten. Oñ hori ez da ezer, baiña orduan ba... 1950eko hamarkadan izan zan hori, Odeón zinia inaugurau zanian edo. Nahiko egun izan zan karteleran, eta danetan toperaiño beteta. Umieri ez ziuen sartzen lagako, baiña herriko nagusi guztixak hantxe izango giñan. Espektakulua! Ba artista onak ziran, emakume edarrak...”.*

### **Ramon Maiztegi Iriarte**

Baina gure herrian, Odeón zinema zabaldu baino hainbat hamarkada lehenago ere, bazen antzerkiarekiko zaletasuna.

*“Merkatu plazan ere egitten ziran antzezlanak, batez ere udan. Eta plaza txikira komediантиak etortzen ziran. Paillazuak ziran eta oso espektakulo politta egitten zeбен. Ikustera juten giñan, bakoitza bere sillatxua hartuta”.*

### **José Gurrutxaga Ondartza**

Errosario kaleko zinema zaharra, azoka plaza, Aita Agirrerren plaza edo Batzokia bera izan ziren hainbat antzezlanen antzeztoki.

*"Asko gustau izan jata beti teatrua, eta ahal nabanian juten nitzan. "El Caserío" eta "Txelu kartzelan dago" izeneko teatruak gogoratzen dittut. Errosarixoko kaleko zine zaharrian ikusi nittuan”.*

### **Ventura Agirregomezkorta Ibarluzea**



German Uriguen, “Etxegiña”, danbolin-jole bat eta lau pilotari Sigmako frontoian.

Kasurik gehienetan, herriko antzerki zaleak izaten ziren antzezlanak egiten zituztenak: Lagun Onak orfeoiaren inguruan biltzen zirenak esaterako.

*“Elgoibarren teatroko grupo onak ere egon dira. Jose Juaristi, Francisco Juaristi, Miren Vallejo, Manolo Rementeria... inguruan onenetakuk zirala uste dot, ondo preparauta. Taldia izena zan... Orfeón Lagun Onak de Elgoibar. Amistad taberniaren gañian zauka-ben lokala. Santolaya zaharra ere ibiltzen zan hor, Lagun Onak-en”.*

**Ramon Maiztegi Iriarte**

Eta ezin kapitulu honi amaiera eman Ongarri eta Elgoibarko Izarra elkarteak, bereziki, aipatu gabe. Sortu zirenetik, lanean ari izan dira euskal kultura elgoibartarrei ezagutarazten.

---

*GERMAN URIGUEN "ETXEGIÑA" (1898 - 1986)*

*Bertsolari entzutetsua izan zen. Ermuan jaio zen 1898 urtean, eta 1924an Elgoibarrera etorri zen bizi izatera. Hasieran Gabilondoneko enpresan egin zuen lan, eta ondoren, Sigman. Familiaren, eta batez ere, bere osaba Juan Kruz Uriguenen eraginez, 14 urterekin sortu zitzaion bertsolaritzarekiko zaletasuna. "Etxegiñaren" osaba ere bertsolaria izan zen. Hiru urte beranduago, Santa Agedako koruetan parte hartzen hasi zen. Izan ere, "Etxegiña" izan zen ohitura honi jarraipena eman zion taldearen sortzailea. Bere sorkuntzarik garrantzitsuena "Salbea" izan zen. Bertso horiek 17 urterekin kantatu zituen lehenengo aldiz, Ermuan. 1.986ko apirilaren 14an hil zen.*

## X. Jana eta edana

### *Jatorduak*

Duela 80ren bat urte, elgoibartarrek lau jatordu egiten zituzten egunean: gosaria, bazkaria, merienda eta afaria. Gosaria goizeko 7ak eta 8ak bitartean izaten zen; bazkaria, eguerdiko 12 eta erdiak aldera; merienda, arratsaldeko 6etan; eta afaria, 9ak eta 10ak bitartean. Baina gure herriko familia guztiak ez zituzten jatordu horiek guztiak zehatz-mehatz egiten. Elgoibartar askok jatordu haietariko bat, afaria, alde batera utzi eta “apari merienda” delakoa egiten zuten. Hau da, meriendaren eta afariaren ordezkotako jatordu bat, iluntzeko 7ak eta 8ak bitartean egiten zena.

Gehienetan, gure aitona-amonek sukaldean egiten zituzten jatordu haiek guztiak. Jangela, berriz, oso gutxitan erabiltzen zuten: jaietan edo senideen zein lagunengandik bisita izaten zutenean, esaterako.



Gure herriko koadrilek edozein aukera aprobetxatzen zuten mahaiaren inguruan biltzeko.

*“Goizian ez genduan danok batera gosaltzen, baiña bazkarittan eta afarittan danok sukaldian alkartzan giñan. Gero, merixendia eta holakuak lanian bertan zagozen tokira eruaten ziran”.*

#### **Mariano Elustondo Aizpiri**

Norbait hiltzen zenean, oso ohikoa zen senideentzako eta lagunentzako bazkari bat antolatzea. Baina “ospakizun” berezi haietan gertatzen ziren gehiegikerien ondorioz, bazkari haiek egiteari utzi zioten.

*“Pertsona bat hiltzen zanian, enterrau eta gero, honrak egitten ziran. Eta zaguan kostunbria bazkarixa emateko etortzen ziran senide guztixeri. Gero ohitura hori kendu egin zaben. Eta ondo egin zaben, gaiñera. Mozkortu egitten zan jendia. Lotsagarrixa izaten zan. Nere amama hil zanian, esate batera, honretako bazkarixan 40 bat lagun alkartu ziran”.*

#### **Markos Arregi Iriondo**

XX. mendearen hasieran, Elgoibarko familiek, nagusiki, esnea hartzen zuten gosaltzeko. Esnearekin batera, ordea, ogia, gailetak edo baserrian bertan egindako taloak jaten zituzten.

Jatordu haien guztien artetik, garrantzitsuena eguerdikoa izaten zen, bazkaria, alegia. Bazkaria desberdina izaten zen asteguna ala jaieguna izan. Izan ere, elgoibartarrek jaiegun gutxi izaten zituzten, eta asteko atsedena ondo merezia izaten zuten. Jaiegunetan, bada, bazkaria izaten gauzarik estimatuenetakoa.



Altzolako bainuetzeko langileak, jangelan, bankete bat egin aurretik. 1933 urtea.

Babak izaten ziren erdi mailako familia baten elikagairik ohikoenak. Gorriak, zuriak, beltzak... berdin zen zein eratakoak ziren. Kontua da, jatorduetan, ia Elgoibarko familia guztiek babak jaten zituztela. Arrautzak, urdaiazpikoa, eta nola ez, ortuariak ere sasoi hartako elikagai oinarritzkoak ziren.

*“Bazkaltzeko basarriko jenerua hartzen genduan; gehixen bat, babak eta porruak... ardi-xaren tripak ere egosi egitxen genduzen, odolostiak egitten diran moduan. Oso goxuak izaten ziran. Txarrixa ere hiltzen gendun basarrixan txorixuak eta holakuak egitteko. Ogixa gure amamak egitten zaban basarrixan. Eta nik ere egin izan dot ogixa Eibarren kriada egon nitzanian, oso goxua, gaiñera. Esne pixka bat botatzen nion nik ogixari, batidu ondo eta gustua gailletiana hartzen zaban. Makarroiak ere hartzen genduzen. Dendetan bazaguazen, baina etxian nik egitten nittun, tallarines esaten genduan. Harek egitteko ura, ardo zurixa, arrautzak eta mantekillia erabiltzen naban nik”.*

#### **Ventura Agirregomezkorta Ibarluzea**

Igande eta jaiegunetako bazkaria, aldiz, desberdina izaten zen. Herriko familiak garbantzuz lapikoko bat jateko elkartzen ziren mahaiaren bueltan. Oro har, urdai zati eder batzuk, saiheskia eta txorizoa ere jaten zituzten garbantzuarekin batera.

Bukatzeko, fruta, intxaurrak, gazta edo menbriloa jaten zuten. Hala ere, batzuetan, etxe-koandreak tarta edo pastelen bat egiten zuten etxekoen gozamenerako. Meriendaren helburua zen, afalordua iritsi arte, sabela zertxobait betetzea. Normalean, txokolata eta ogi zati



bat jaten zuten. Eguneko azken jatordua afaria izaten zen. Sasoi hartan, zopa, tortilla edo arraina izaten zuten afaltzeko.

Edonola ere, baserriko eta ortuko produktuak ezinbesteko elikagaiak ziren gure herriko familien artean.

*“Jeneralian basarrixan jasotakuakin eta egindakuakin jaten gendun: artua, esnia, taluak, baba gorrixa, ogixa... dana etxian eginda hartutakua. Baba gorrixak bai zirala onak!”.*

**Juliana Zubizarreta Gurrutxaga**

Ogia zen beste oinarrizko elikagai bat. Baserri askotan egiten zuten eurentzako ogia. Dena dela, baserritar batzuek behar baino ogi gehiago egiten zuten, auzokoan artean saltzeko. Beste batzuek, ostera, etxekoentzako lain egiten zuten.

*“Ogixa ere etxian egitten gendun, baiña egixa da hemen behian Arozena panaderixia zaguala eta ogixa egitten bertakua erakutsi ziguen. Nere amak ogi ona egitten zaban, famia zaukan eta. Nere amak egitten zaban ogixa "de categoria"!.”.*

**Markos Arregi Iriondo**

Elgoibartarren, eta batez ere baserritarren, arteko ohitura bat txerria hiltzearena zen. San Martin egunaren bueltan hiltzen zen txerria.

### ***Edariak eta tabernak***

Edari alkoholunen kontsumoa ez da gauza berria elgoibartarrentzat. Duela mende batzuk, herritarren artean zabaldu egin zen tankera honetako edarien kontsumoa. Edari haiek, sagardoa edo txakolina esaterako, etxean edo baserrian egiten zituzten askotan.

Gure aiton-amonek adierazi diguten legez, duela hamarkada batzuk baserri askotan bazeuden sagarrondoak. Horretaz gain, gutxi batzuetan mahatsoak ere izaten ziren. Sagarrondo eta mahatsoetatik edari preziatu haiek egiteko lehengaia ateratzen zuten. Kontuan izan dezagun, garai hartan, ardo garrafoi bat erosi nahi zuenak herriko tabernaren batera joan behar izaten zuela. Eta hori ez zegoen denen esku. Horrela bada, etxeko sagardoa eta txakolina janariarekin batera hartzeko edaririk ohikoenak bihurtu ziren.

*“Jaixetan ardaia edaten gendun. Baiña, normalian, etxian sagardaua edaten gendun bazkaltzeko, guk basarrixan egindakua”.*

**Mariano Elustondo Aizpiri**

Urteak joan urteak etorri, elgoibartarrak, mahaiaren inguruan elkartzen zirenean, geroz eta ardo gehiago edaten hasi ziren. Ardoak, batez ere, gizonen artean izan zuen zabalkunderik handiena, eta ondorioz, ardoa edatea ohitura bihurtu zen gure nagusien artean. Emakumeek, aldiz, ohiturari gogorra eutsi, eta eguneroko edari bezala sagardoarekin jarraitu zuten.

*“Edateko beti hartu dot sagardaua, ardaia sekula etxata gustau eta. Sagardaua guk basarrixan egindakua zan. Haura bai edarra zala!”.*

**Juliana Zubizarreta Gurrutxaga**

Bazkalostean, gure auzokoek kafea edo kamamila hartzen zuten. Gizonezkoek, kafearekin edo kamamilarekin batera, herriko upategietan edo janari-dendetan erositako likoreren bat hartzen zuten. Sasoi hartan, gaur egun baino aukera gutxiago zegoen, eta gure nagusiek pattarra edo koñaka edaten zuten. Aitzitik, emakumeek, koparen bat hartzekotan, anisa edan ohi zuten. Hala ere, gutxi batzuk ziren edateko ohitura zeukaten emakumeak.

Ondoko lerroetan, alde batera utziko dugu etxeetan eta senitar-tean zein alkohol mota hartzen zen, eta tabernetan kokatuko dugu gure ikuspuntua. Tabernak elgoibartarren bizi-moduaren parte bihurtu ziren, XIX. mendean, gure herriko kaleetan hedatu zirenetik.

Gauzak horrela, eta huts egiteko beldurrik gabe, esan dezakegu, joan den mendearen hasieran, herriko tabernak bertakoen gogokoak zirela. Hala ere, bazen berezitasun bat: taberna haietara sartzen zirenak, ia beti, gizonezkoak izaten ziren. Haatik, emakumeak ia ez ziren tabernetara joaten, euren bikotekideek lagunduta ez bazen. Sasoi haietan ez zegoen ondo ikusita emakume bat taberna batera sartzea (batik bat bakarrik baldin bazegoen), eta are gutxiago, emakumeak txikitoreren batzuk hartzea. Eta hura guztiek, bai gizonezkoek, bai emakumezkoek, normaltzat hartzen zuten.



Mariano Elustondo eta Maria Arregi, Gorbea tabernan, Bixente Maiztegiren eta Antonia Elustondoren ezkontzan. 1957 urtea.

*“Neska-mutillak alkarrekin ibiltzen giñan San Lorentzo auzuan, baiña epoka haretan neskek ez ziran tabernara sartzen. Nere andria ere ez da sekula sartu. Ezkondutakuan bai, baiña bestela ez. Neska bat sartzen zanian, erreparua ere bai”.*

### **Mariano Elustondo Aizpiri**

Herriko industriaren pizkundearekin batera, hau da, 30eko hamarkadatik aurrera, herriko tabernetan egiten zen txikiteoa gure auzotarren arteko ohiturarik zabalduenetakoa bihurtu zen. “Txikiteroak”, batez ere, igande eta jai egunetan irteten ziren. Hala ere, nahiko ohikoa zen koadrila elgoibartarrak, lanegunetan ere, tabernaz taberna ibiltzea.

Lana amaitu ondoren, adin guztietako elgoibartarrak euren lagunekin batzen ziren herriko tabernetan. Eta porroi bat bukatu eta hurrengoa hasi bitartean, berriketan eta kantuan jarduten zuten. Hori bai, alaitasuna eta umore ona nagusi izaten ziren herriko tabernetan.

*“1941 urtian, ezkondu eta gero, etorri nitzan Elgoibarrera, eta Errosarixo kaleko girua oso politta zan. Bazagozen gizonezkuen kuadrilla batzuk, xalau-xalauak ziran. Lanetik urten, eta txikiteora juaten ziran. Tabernetatikan kantuan urtetzen zeбен. Gaur egungo ambientia diferentia da. Ni, arratsaldetan, oso gustora egoten nitzan etxeko balkoian, gizonezkuak kantuan entzuten”.*

### **Teresa Aginaga Madariaga**

Sasoi batean tabernak erruz ugaritu ziren gure herriko kaleetan. Ondorioz, koadrila bakoitzak kuartel nagusi propioa izaten zuen, denbora gehien igarotzen zuten tabernan. Taberna hura izaten zen lagun taldearen topaleku. Dena dela, txikiteoaren ezaugarrietariko bat tabernaz taberna ibiltzea izaten zen. Taberna haietan, ia derrigorrez, ardoa edan behar izaten zuten.

*“14 bat taberna egongo ziran Elgoibarren nere gazte denporan. Konde zan klasikua. Gorbea gerra ostekua. Barrutia ere zagan, Cristina... Herriko tabernetan giro ona egoten zan. Elgoibarko kuadrillan 25 bat lagun alkartuko giñan orduan. Juntatzen giñan tabernetan, eta lau txikito edan orduko, baten bat hasten zan kantatzen. Eta gero animatzen giñan bestiok eta... orfeoia. Lehengoko txikiteuak horixe zakan. Oingo jendia mozkortu egitten da, “con el botellón y eso”. Orduan hori ez zagan, porroittikan edo bestetikan eta... toki baten jarri ta hantxe jarraitu. Jeneralian hola. Txikiteua, taberna batetik bestera egitten zan, baiña juntauta. Gure zera zan... Kondenekua. Hara juaten giñan. Ardaua edaten gendun orduan. Ez zagan dirurik gehixagorako eta. Txikitu orduan txakur haundi bat edo izaten zan. Tamaiña desberdiña ateratzen zeбен, kamareruan borondatiaren arabera”.*

### **Ramon Maiztegi Iriarte**

Gehienetan, koadrila bakoitzak ondo zehaztuta zeukan txikiteoan egingo zuen ibilbidea. Horrela bada, beti taberna berean ematen zitzaion hasiera txikiteoari. Taberna batetik bestera joan behar zutenean, koadrilako lagun guztiek bazekiten nora joan. Txikiteoak beti izaten zuen errutina bat, eta baita horrela izateko arrazoia ere: baten bat txikiteora berandu joan arren, jakingo zuen zein bide hartu behar zuen koadrilarekin bat egiteko.

*“Gure kuadrillako lagunak ere alkartzen giñan, bueltatxo bat egiteko txikiteuan. Kondenekeo tabernan hasi, eta Gorostizanera juaten giñan. Gero, San Frantzisko kalia behera, Maalaraiño juaten giñan. Goguan daukat, gure kuadrilliari, illuntzixan, txikiteau ostian, kantuan jardutia gustatzen zitzakola. Jaixan Melitoneru juaten giñan, kantuan egitera. Astian ez genduan urtetzen. Jeneralian, domeka eguardixan egitten genduan txikiteua. Txikituak edaten genduzen: ardaua, beti”.*

### **José Gurrutzaga Ondartza**

Baina txikiteoak ez zuen herritarrak elkarrekin ibiltzeko eta eguneroko lana apur batez ahazteko bakarrik balio. Horretaz gain, zutabe nagusia izan zen, sortu berri zen industriari edo eraikuntzari lan egitera, estatuko toki askotatik zetorren jendea integra zedin. Kanpotik etorritako gehienak ondo azkar hasi ziren txikiteoan, eta txikiteo hura eguneroko ohitura bihurtu zen.

*“Elgoibarrera etorri nitzanian 28 taberna zagozen, eta ni 28 horretan ibiltzen nitzan txikiteuan. Danak oso ondo konpontzen giñan alkarrekin, bertakuak eta kanpotik etorri giña-*

*nak. Oso ondo integratu nitzan herrixan. Hemen ere kinielia jokatzen naban Kondeneko tabernan. Orduan, 10 zentimo kostatzen zan kinielia. Pagau, eta buzoi baten sartzen zeber”.*

**José Manuel Acosta Calvo**

*“Domeketan, txikiteora juaten giñanian, beti bide berdina egitten genduan. Jai Alaixan hasten giñan, gero Errosarixo kalia behera juaten giñan, Gorostizanera, Leonardonera... Gero, Leon tabernia ere bazaguan. Handik, Urkiolanera. Ondoren, Majestadenera edo Txarridunanera. Elgoibarko gazte-kuadrilla danak ezagutzen genduan alkar; oso ondo konpontzen giñan danak. Basarritarrak ez ziran domeketan eta jai egunetan txikiteora etortzen. Auzuan geratzen ziran. Gu beti toki berian ibiltzen giñan”.*

**Eugenio Diego Aranburu**

## XI. Janzkera eta irudi pertsonala

Denok dakigu gaur egungo gizartean nerabe eta gazte asko direla, komunikabideek eraginda, janzterako orduan, miresten dituzten pertsonaia publikoak (aktoreak, kirolariak, abeslariak...) erreferentzia puntu gisa hartzen dituztenak.

Aitzitik, gure aiton-amonon sasoian inori ez zitzaion bururutzen, arropa erostean, norbaiten janzkera imitatzea. Ondo gogoan izaten zituzten etxeko estuasun ekonomikoak, eta beti ere, konforme egoten ziren eskueran izaten zuten arroparekin. Horrek ez du zerikusirik gaur egungo egoerarekin.

*“Tergalezko soiñeko batzuk ibiltzen genduzen. Jaiko erropak hobiak izaten ziran. Basarrixan erropa bat ibiltzen gendun lanerako eta gero, kalerako, kanbixauta. Elgoibarren kalian erosten gendun erropia. Engrazianeko dendan, akordatzen naiz. Gaur Madalengan daguan botikaren onduan zagan. Oiñetakuak, abarkak ibiltzen genduzen. Orduan erropa danak antzerakuak izaten zian”.*

### **Juliana Zubizarreta Gurrutxaga**

Joan den mendearen lehenengo hamarkadetan, oro har, gure herritarrek arropa bat izaten zuten “astegunetarako”, eta beste bat, “igande eta jai egunetarako”. Are gehiago, sasoi hartan ez zegoen arropa berezirik ez mendira joateko, ezta kirola egiteko ere. Ez zegoen zeukatena baino arropa gehiago erosteko aukerarik, eta hura erabili behar gauza guztietarako. Egoera hura, ordea, desberdina zen baliabide ekonomiko hobeak zituzten familietan. Baina, zer esanik ez, familia haiek gutxiengoa ziren Elgoibar bezalako herri langile batean.

*“Gazte denporan bata batekin eta alpargatekin ateratzen giñan kalera eta domeketan beste erropa batekin. Igandeko erropak berrixenak eta polittenak izaten ziran. Erropak eta dana lan egitxen naban ugezaben dendan erosten gendun orduan”.*

### **Teodosia Iriondo Garate**

Antzeko zerbait gertatzen zen garai hartan erabiltzen zituzten oinetakoei dagokienean. Abarkak eta abarketak ezinbestekoak ziren gure aiton-amonon janzkeran. Elkarriketatu guztiek zapata pareren bat bazutela adierazten duten arren, une berezietan bakarrik erabiltzen zituztela diote.

*“Zapatak gitxitan usatzen ziran, ixa beti abarketak eruaten genitxun. Horrek ensegida apurtzen ziran, bihatzetan zulatu egitxen ziran. Eta gero berrixak bihar”.*

### **Mariano Elustondo Aizpiri**

Norbere buruaren garbiketari dagokionez, gogorarazi behar dugu sasoi hartan, herriko ia baserri gehienetan ez zegoela dutxarrik. Egoera hartan, baserriko sukaldean garbitzen ziren atalka, bestela, sukaldean berotutako ura botatzen zuten barreinu batera garbitu ahal izateko. Hori zen ohikoena. Hala ere, eguraldi ona iristen zenean, baserri auzoetako elgoibartarrak askan garbitzen ziren. Etxetik hurbil erreka edo errekastoren bat egonez gero, bertan ere garbitzen ziren.

*“Dutxarrik ez zagan etxian: atarixan egoten zan aska haundi bat eta hantxe ibiltzen giñan danak sartuta... eta horixe zan gure dutxia. Ura bazagan etxian ere, baiña hara jua-*

ten giñan. Hotza egitxen zabanian, ez giñan han sartzen. Neguan, koziñan berotzen gendun ura, eta harekin arreglatzen giñan”.

**Joxe Gurrutxaga Lizarralde**

Gure aiton-amonek garbitzeko erabiltzen zuten xaboia baserrian bertan egindakoa izaten zen. Horretarako, koipea egosten zuten. Baina xaboia ez zen Elgoibarko familiek gehien erabiltzen zuten produktua. Izan ere, sasoi hartan, elgoibartarrak, beste leku batzuetatik etorritako pertsonak bezalaxe, astean behin bakarrik dutxatzen ziren. Egia esan, sasoi hartako baldintzak ez ziren egokienak, gaur egun, hain atsegina eta eroso den dutxarekiko zale-tasuna pizteko. Baina garai hartan, gauzak arras desberdinak ziren, eta gure aiton-amonak, gehienetan, igande goizetan dutxatzen ziren. Lehendabizi, baserriko lanak egiten zituzten, eta ondoren, dutxatu egiten ziren. Izan ere, nahitaezkoa izaten zen mezarara joan aurretik, dutxatu eta arropa aldatzea. Hala ere, batzuk igandea iritsi baino lehen dutxatzen ziren. Sasoi hartan, lan-jarduna larunbat arratsaldera arte luzatzen zen. Eta bat baino gehiago lana bukatzerako lur jota gelditzen zenez, Deba ibaian bainatzen zen lanetik irten bezain laster. Hori bai, hura gazteen kontua izaten zen.



Sallobente-Ermuaran auzoko Mokoroa baserriaren atarian ateratako irudia, 1925 urte inguruan. Ezkerretik eskuinera: Migel Arozena, Josefa Etxaniz, Libereta Aranbarri eta Juan Egia.

*“Dutxarik orduan ez zagan, baiña nik kontauko dizut nere lehenengo dutxia nun hartu naban. Uda baten nere amaren ahizpa bat Argentinatik etorri zan hona. Lehen izaten zan... erropia garbitzeko egosi egitxen zan eta egosteko lixibia erabiltzen zeбен. Eta gure etxian zagan harrizko zulo bat eta han ipintzen zan gaiñian barrika txiki bat erropaz beteta, sare baten barruan, eta hari ura, erramua, sutako hautsa... bota eta erropia han egosi eta gero, errekan edo askan akklaratzten zan. Gero egoten zan leun, leun, leuna erropia. Eta nik nere lehenengo dutxia zulo haretan hartu naban. Eta tiak baldiakin ura bota eta holaxe hartu naban. Zapatu gabetan, aste osua lanian egon eta gero, mutill kuadrillia errekan baiñatzen giñan garbitzeko”.*

**Markos Arregi Iriondo**

Gure aiton-amonek euren burua zaintzeko zituzten ohiturekin jarraituz, ilearen zainketari erreparatuko diogu. Ia elkarrizketatu guztiek adierazi diguten bezala, ama izaten zen estreina-koz umeei ilea mozten ziena. Asmoa ilea apaintzea izan arren, ez zuten beti horretan asmatzen. Jarduera hura ohikoa izaten zen haurtzaroan eta nerabazaroko lehenengo urteetan. Baina behin gaztarora iritsiz gero, ile-apaintzailearengana joaten hasten ziren. Hori, batez ere, gizonezkoen artean gertatzen zen.

*“Ilea moztu, txiki-txikittan amak egitten zigun etxian. Gero pixka bat nagusitzen giñanian pelukerixara juaten giñan. Agapitorena juaten giñan. Ez dakitt, errial bi edo eskatzen zigun; ez nago oso seguru”.*

**Joxe Gurrutxaga Lizarralde**



Aiastia (San Migel) auzoan hartutako irudia, 1935 urtean.

Gaur egungo egoerarekin zerikusi handirik ez badu ere, sasoi haietan ere egoten ziren modak. Horrela bada, ile luzea izaten zen gizonezkoek emakumeengan gehien estimatzen zutena. Horregatik, emakumeek nahikoa izaten zuten, noizean behin, ilearen puntak eta bekokiko ilea moztearekin. Hala ere, bazegoen ile motza eramatea nahiago zuenik. Ia beti, emakumea bera edo hurbileko senideren bat izaten ziren ilea konpontzen aritzen zirenak.

*“Pelukerixak bazauden, baiña gu ez giñan juaten. Neri amak mozten zidan illia, hilbeheran. Nere anaixeri pelukerixetan mozten ziuena illia. Pelukero bat akordatzen naiz, Agapito. Gaur egun, Osoro zapaterixia daguan onduan zaguana, San Frantzisko kalia”.*

**Juliana Zubizarreta Gurrutxaga**

Halaber, garai hartan, emakumeek makilatze-ko aukera ere izaten zuten. Baina ohitura hura ez zegoen ondo ikusita, eta oso gutxi ziren makilatzen zirenak.

*“Makillajerik ez naban hartzen. Egon, bazaguan, baiña neri arpegixa erretzen zitatan”.*

**Ventura Agirregomezkorta Ibarluzea**

Gaur egun eta sasoi hartan, oso ohitura desberdinak zeuden eguzkia hartzearen inguruan. Gure aurrekoek ez zuten, gaur egun bezala, eguzkia hartzeko ohiturarik. Haientzat gerizpea zen eguzkiak zuen gauzarik hoberena. Gainera, azal zuria zen modan zegoena.



Gurutze Gorriaren aldeko diru-bilketa batean parte hartu zuten gazteak. Gutxi gorabehera 1920 urtea.

*“Ezpaiñak pinttau... lokatziakin, bai. Baten bat ezpaiñak pinttauta ikusten banaban, “Kotxino!” esaten gendun... Eguzkixa hartu... lanera juaten giñanian, bai. Dana beltz-beltz eginda egoten giñan orduan”.*

**Juliana Zubizarreta Gurrutxaga**



## XII. Erljioa

Zalantzarik gabe, gure gizartean aldaketarik handiena izan duen arloa erlijioari dagokiona izan da; izan ere, izugarri aldatu da herritarrek erlijioarekiko zuten ikuspuntua.

Elgoibarren, inguruko herri guztietan gertatu den bezalaxe, erlijioak, poliki-poliki, galdu egin du zuen eragina. Egunetik egunera, gero eta jende gutxiagok sumatzen du erlijioaren baloreen eragina eguneroko bizimoduan. Hala eta guztiz ere, hori ez da beti hala izan. Duela 70 edo 80 urte, eliza Katolikoaren postulatuek erabat baldintzaten zuten gure herritarren jokabidea. Elgoibartar gehienek normaltasun osoz onartzen zuten egoera hori, nahiz eta guztiek ez zuten sinismen haiekin bat egiten. Auzotarren zeresanak garrantzia handia zuen, eta elizara ez joatea nahikoa izan zitekeen denon ahotan ibiltzeko. Argi dago inork ez zuela egoera hura gogoko, eta guztiak saiatzten zirela egoera hartatik ihes egiten. Gainera, kontua okerragoa ere izan zitekeen, elizako “obligazioak” betetzen ez zituztenak “fitxatuta” egoten zirelako.

*“Erljiuarekin zerikusirik ez bazenduan, igual ez zizuen lanik ematen. Gero, eliziak gauza bat egitten zaban, baiña neretzat ez zagan ondo. “Txartela” ematen zizuen, jaunartu zenduala jakitzeko. “Txartel” bat ematen zaben urtero, Pazko aldera. Elizara jun bihar zan, eta jaunartu zenduala jartzen zaban “txartela” eman. “Txartelik” eman ezian, “fitxau” egitten ziñuezen”.*

### **Eugenio Diego Aranburu**

*“Pilarreko kolejixuan gabizenian, igande goizetan eta arratsaldietan “bizperak” errezau bihar ziran. Mezetara jun bihar zan, bestela, notia kentzen zeben. “Bizperak” deitzen giñon igande arratsaldietako meziari. Arratsaldeko ordu bixetan edo hiruretan izaten zan”.*

### **José Gurrutxaga Ondartza**

Erljioak are indar handiagoa zeukan inguruko herrietan, hala Azkoitian, nola Azpeitian. Egia esan, Loiolako santutegiak eragin ikaragarria zuen, eta gure herrian ere nabaritu ahal izan zen haren eragina.

*“Mezetara igandero juten giñan. San Pedroko fabrikan gabian lana egin, eta zuzenian, goizian, Maalara, mezia entzutera. Goizeko seiretan, zortziretan eta hamaiketan izaten zan mezia. Garai haretan mezia sagraua izaten zan”.*

### **Markos Arregi Iriondo**

Edonola ere, gure aiton-amonen sasoiari “ezinbestekoa” zen igandetan eta gainontzeko jaiegunetan elizkizunetara joatea.

*“Igandero juten giñan mezetara. Gure familixia oso elizakua zan. Nere ama umezurtz geldittu zan, eta abade familixa batek hartu zaban. Gurian, mahaixan jarrittakuan, beti errezatzen zan”.*

### **Nikasi Andonegi Sustaeta**

Zentzu horretan, esan behar da Elgoibarko erdialdean bizi ziren herritarrek San Bartolome parrokiara edo Maalako elizara joaten zirela meza entzutera.

*“Mezetara jeneralian parrokiara juten giñan, domekero eta zeozer berezixa zaguanian. Mezak seiretan, zortziretan, hamarretan eeta hamaiketan izaten ziran. Hamaiketakua zan Meza Nagusixa. Gu askotan seiretakora juten giñan, gero basarrixan lan egin bihar izaten zan eta”.*

### **Juliana Zubizarreta Gurrutxaga**



San Antolin basiliza auzotarren biltokirik garrantzitsuena izan zen. 1972an bota egin zuten, autobidea egiteko.

Baserritar gehienak, bestalde, auzoko basilizan egiten ziren elizkizunetara joan ohi ziren.

*“Txiki-txikittatik mezetara juten ikasi genduan, ohitura hori hartu genduan eta orduan mezetara ez jutia zan pekatua. Gure etxian, gaiñera, mezetara juaten ez bagiñan... bueno! San Lorentzoko ermittara juten giñan mezia entzutera. Parrokixara gitxi, hillaren lehenengo barixakuetan. Gazte denporan Don Satur Campos zan San Lorentzoko apaiza. Ondarrutarra zan. Eta tartamutua zan pixkat eta Ebanjelixua edo esplikatzen hasten zanian, ezin izaten zaban pronuntziau ondo, eta lotsatu, gaiñera. Lehen, abadiak mezia aurrera begira ematen zaban; oiñ arpegixari begira ematen dabe, baiña lehen ez”.*

### **Joxe Gurrutxaga Lizarralde**

Bakoitzak, bere beharren arabera, gehien komeni zitzaion meza entzuten zuen. Gustu guztietarako aukerak zeuden. Izan ere igandeetan, goiz guztian zehar, meza bat baino gehiago izaten baitzen.

*“Domekero parrokiara juten nitzan mezetara, goizeko bederatziretan. Orduan mezia egoten zan sei t’erdixetan, zazpi t’erdixetan, zortzi t’erdixetan eta bederatziretan. Gero, hamar t’erdixetan, Meza Nagusixa. Hori domeketan. Lan-egunetan sei t’erdixetan, eta bederatziretan ere bai. Astian, sei t’erdixetakora juten nitzan. Urteko ixa egun danetan juten nitzan mezetara”*

### **Teresa Aginaga Madariaga**

Sasoi hartan zegoen apaiz eta elizgizonen kopuruak ere ez zuen zerikusirik gaur egungoarekin.

*“Mezetara juten nitzan beti gazte denporan, sekula faltau gabe. Goizeko seiretako mezetara juten nitzan ni igandero. Orduan abade mordua izaten ziran Elgoibarren, sei bat edo bai behintzat. Don Jose Antonio, Don Severiano, Don Saturnino eta Don Julian gogoratzen dittut. Danak ezagutzen nittuan nik”.*

### **Ventura Agirregomezkorta Ibarluzea**

Elizak ondo beteta zituen bere lanpostuak; horrela bada, Altzolakoa moduko elizek ere izaten zuten parrokoa.



Aita Agirre, Don Antonio Arrillaga alkatearekin eta sasoi hartako beste agintari batzuekin batera, bere jaioterrira egin zuen bisitaldi batean.

*“Mezetara derrigorrez jun bihar orduan. Altzolara juten giñan igandero. Bi meza zagozen. Astian bat, zortziretan edo, baiña jaixan bi: bat zazpiretan eta bestia hamarretan. Parrokua zagan han, eta egunero zagan mezia. Nik ezagutu naban Don Markos parrokoa, bere monagillua izan nitzan ni umetan. Pertsona ona zan, terkua pixkat bai baiña...”.*

### **Juan Lariz Garate**

Pentsa dezakegun bezala, erlijioarekiko zaletasun handiegirik ez zuen jendea ere bazegoen. Hala ere, sasoi hartako gizartea zer nolakoa zen ikusita, hobere-na zen pentsamolde hori ezkutuan eduki eta gainontzeko herritarrek bezala jokatzea, hau da, elizkizunetan parte hartzea.

---

### **D. Fr. FRANTZISKO AGIRRE (1863 - 1941)**

Frantzisko Agirrek, Aita Agirre izenaz ezagunagoa izan zenak, Dominikoen sotana zuria jaso zuen Toledon dagoen Ocaña herriko Santo Domingo komentuan, 1879ko Irailaren 13an. Elizgizon ikasketak egin zituen eta baita emaitza ezinobeekin bukatu ere. 1887ko Apirilean presbiteratua lortu zuen. Handik hilabete gutxira, Txinako Fukien probintziara iritsi zen. Bertan izugarritzko apostolatua egin zuen. Asian zehar, kristautasuna zabaltzeko lan garrantzitsua egin zuen, besteak beste, apaiz nahiz abadeak bideratuz, misioak zuzenduz eta eskolak sortuz.

*“Ni ez nitzan sekula mezetara jun, bigarren andriarekin ezkondu nitzan arte. Haura pozik eukitzeko jun egin bihar. 1954 edo 1956 urtian hasi nitzan mezetara juten. Baiña jauna hartzera ez, andriari laguntzera. Sekula ez dot erlijuan sinistu. Gure aittak esaten zaban: elizia komertzio bat da, eta abadiak komertziantiak, kanpai joka hasten diranian, urreratzen dira ignorantiak! Beste hau ere bai: elizako atian ikatzarekin dago idatzitta: Hemen Jangoikuarentzat eskatzen da, baiña ez jako Jesukristori ere ematen! Gure aittak esaten zaban tximinixarik gabeko taillarra zala”.*

**Eugenio Diego Aranburu**



Baserri auzoetako biztanle guzti-guztiak auzoko basilizan egiten zen elizkizunera joaten ziren igandero. Aiaastia (San Migel), 1945 urtea.

Horretaz gain, elizgizonekin izandako harremanen ondorioz, desengainuak izan, eta elizan eta erlijio katolikoan jarrita zuen konfiantza galdu zutenak ere badira.

*“Elgoibarrera etorri nitzanian igandero juten nitzan mezetara. Baiña gero, ume txikixak nittuanian, jai egunetan ezin nitzan jun mezetara goizeko zortzirik baiño lehenago. Ez nakan pertsona bat umiak zaintzen lagatzeko. Orduan konfesatzera juten nitzan, eta behiñ Don Severianori (oso “seberua” zan apaiz haura) esan nion igandietan ezin nitzala jun mezetara, baiña zapatuetan baietz, ahal nabala. Eta esan zidan zapatukuak ez zabala bali-xo, ehizera juten ziranentzako bakarrik balixo zabala. Eta hola, Don Severiano apaizarekin izandako esperientzixa pasau eta gero, erlijuiak zentzu haundixa galdu zaban neretzat”.*

**Felisa Bergaretxe Ardanza**

Bestalde, jai ei eskainitako atalean adierazi dugunaren arabera, estimazio handia izaten zuten herritarren artean erlijio kutsuko jai egunek, San Bartolome, San Anton edo Hirutasun

Santuaren egunek, esaterako. Antzeko zerbait gertatzen zen Gabonetan edo Aste Santuan. Guztiak, fededunak nahiz fedegabeak, egun horiek noiz iritsiko zain egoten ziren; egun haietan atseden hartzeko aukera izaten baitzuten.

*“Gabonetan txarrixak hiltzen zan. Pozgarrixak izaten ziran egun harek, familixia alkartzen giñan. Poz haundixa egoten zan gurian. Txarrixak hildako jeneruak izaten ziran gurian bazkarixetan”.*

### **Sotera Zubiaurre Garitaonaindia**

Oro har, Gabonak egun aproposak izaten ziren familiako kide guztiak mahaiaren inguruan biltzeko. Ondo jan eta sabela bete ondoren, bazkalondoaz edo afalondoaz gozatzeko aukera izaten zuten. Batzuek, berriketan jarduteko aprobetxatzen zuten une hura, beste batzuek ordea, kartetan edo mahai jokoren batean aritzeko. Ondoren, lotara joaten ziren.

*“Urkiri basarrixan senide danak juntatzen giñan, ezkondu ziranak ere bai, andra edo gizonekin. Txarrixak hil berri egoten zan, ardi bat ere bai; eta hantxe jan eta edan eginda, su galanta egiñ, gero jokuan egin kartetan-edo, eta gero aspertzen giñanian... tira ba, ohera!”.*

### **Joxe Gurrutxaga Lizarralde**

Gure aiton-amonek ez zeukaten goizaldeko ordu biak edo hirurak arte geratzeko ohitura-rik. Hala ere, beti izan dira salbuespenak, batez ere, kanpotik gure herrira bizi izatera etorri zirenen artean. Halaber, estatuko hainbat tokitatik Elgoibarrera etorri zen jendeak sorterriko ohiturak mantentzen jarraitu zuen.

*“Gure etxia jendez betetzen zan Gabon gabian eta hurrengo gabian ere bai. Han danak egitten zaben dantzaz, nik izan ezik; nik diskuak eta musikia jarri bihar nittuan eta”.*

### **José Manuel Acosta Calvo**

Aste Santuari dagokionean, gutxi izaten ziren egun horietarako antolatzen ziren prozesioak galtzeko prest egoten zirenak. XX. mendearen hasieran, parrokiatik ateratzen ziren prozesio haiek eta Maalaraino iristen ziren. Han, buelta erdi eman eta parrokiara bueltatzen ziren berriz ere, Errosario kaletik barrena. Dena dela, hamarkada batzuk geroago, Ostegun Santu egunean, Ostiral Santuan eta Pazko Igandean egiten ziren prozesioen ibilbi-dea mozteko erabakia hartu zuten.

*“Aste Santuko prozesiora hamaika bider jundakuak gera gu! Hanka-hutsik Santua erua-ten! Hamar bat bider eruan dot Santua. Parrokixatik urten eta Errosarixoa kaletik bueltan. Eta batzuetan Maalaraiño ere bai. Gero ipiñi zebeñ zirkuito hau: parrokixatik urten, San Bartolome kaletik jun, Errosarixora pasau, eta elizaraiño berriro. Jende asko juten zan, eta asko luzatzen zan. Bi pertsona jartzen ziran alde baten, eta beste bi bestian Santua eruateko. Eta jende askok eruan nahi baldin bazaban, hiru eta hiru. Ordu erdi bat izaten zan. Kantzioren bat kantau egitten zan, eta Santua sartu berriro. Barixako Santuan egitten zan: Hil da Jesús! Abesti horrek fama haundixa zakan, eta hori egoten zanian, elizia bete egitten zan. Eguenian, barixakuan eta igandian egitten zan prozesiua. Igandian “procesión del encuentro” egitten zan, inportantiena”.*

### **Ramon Maiztegi Iriarte**

Esan genezake, prozesio haiek, urtero gure herrian egiten ziren ekitaldirik garrantzitsuetarikoak zirela. Elgoibartar ugari (batez ere, baserri auzoetakoak) hurbiltzen ziren Foruen plazara prozesioak hasi baino ordu batzuk lehenago. Horren guztiaren helburua zen hain gogokoa zuten ekitaldi hura ikusteko toki ona hartzea.

*“Aste Santuan oiñ baiño gehixago egoten zan, ambiente politxa. Prozesiua ikustera jende asko jutun zan. Eta batzuek, ordu batzuk lehenago agertzen ziran tokixa hartzera, bestela, igual ezin ikusi”.*

### **Pedro Joxe Artetxe Egia**

Elgoibartarrek dirua ordaindu ohi zuten santua eramateko. Bakoitzak ahal zuena ematen zuen, eta azkenik, enkantean diru gehien eskaintzen zuenak izaten zuen santua eramateko “ohorea”. Askok eta askok, promesaren bat betetzearren eramaten zuten santua.

*“Jesukristo kurutzian eruaten zabenak promesia eukitzen zaben, eta ez dakitt zenbat diru pagatzen zaben. Eruaten zabanak norberak pagau bihar izaten zaban”.*

### **Sotera Zubiaurre Garitaonaindia**

Joan den mendearen hasieran, prozesioan santua eramaten zutenei ogi pixka bat eta baso bat ardo ematen zizkieten ordain gisa. Hori bai, ibilbidea egin ondoren. Noiz edo noiz, parrokoa saiatu zen tradizio hori kentzen. Neurri hori hartzeko arrazoi gisa, esan zuen gutxitu egin behar zirela Elizaren gastuak. Baina elgoibartarren aurkakotasunari aurre egin ezinik, albo batera utzi behar izan zituen bere asmoak.

*“Gure aitta zanak eruaten zaban kajia. Orduan ogixa eta ardaia ematen ziuena kajia kalietan eruaten zabeneri. Baiña gero parroko bat egon zan, eta gasto asko zirala eta, hori kendu nahi izan zaban. Eta bera bi kriadorekin bizi zan. Eta gure aittak esan zion: ogixa ere ez dogu egingo, beti egon da eta horixe ez dozu konsegiuko! Analfabetua zan aitta, baiña hizketan ondo moldatzen zan”.*

### **Teodosia Iriondo Garate**

Era batera edo bestera, Aste Santuak estimazio berezia izaten zuen gure herritarren artean, eta gaur egun ez duen indarra ere bazuen ospakizun hark. Egun pare bat jai izatearen kontua ez zen hileroko gertatzen; eta horregatik, elgoibartarrek ondo aprobetxatzen zituzten jai egun haiek. Bakoitza bere erara, mundu guztia baliatzen zen egunerokotasunari ihes egiteko aukera hartaz.

*“Aste Santuan errespetu haundixa egoten zan. Prozesiua egoten zan herriko kalietan. Eta pixkat nagusitu giñanian, prozesio ostian, Kakatzara etorri, sagardaua edan eta antxoia jan. Eta hantxe zan sagardotegixa, sagardaua saltzen zebeñ han. Holako baso koxkorra, bost zentimuan, txakur txikixan. Eta han egun horretan erreko ziran ez dakitt zenbat kilo antxoa. Antxoak erre eta bat egoten zan barrikan basuak betetzen, eman eta eman eta eman, txakur txikixan. Aizpitartenekua zan sagardotegixa”.*

### **Joxe Gurrutxaga Lizarralde**

Gorpuzti edo bestaberri egunean eta auzoetako jaiegunetan egiten ziren prozesioek ere harrera ona izaten zuten gure aiton-amonen artean.

*“Prozesiua luziak izaten ziran, jende guztixak bueltia ematen zaban herrixan. Eta gero, Korpus egunian ere egitten zan. Egun haretan iñoiz jun izan gera mendira mieluak ekartzera. Bota egin bihar ziran kalia”.*

**Unzueta Iriondo ahizpak**



Idorbeke (San Pedro) auzotarrek, urtero, prozesioa egiten dute santuaren ohoretan. Prozesio hau San Pedro egunean ospatzen da.

Umeren bat bataiatzen zutenean ere ospakizunak egiten zituzten gure nagusiek. Gehienetan, familiak etxean biltzen ziren bazkari berezitzoren bat egiteko. Horrek ez du inolako zerikusirik gaur egungo ospakizunekin. Sasoi hartan aita eta ama besoetakoak, aiton-amonak eta seniderik hurbilenak bakarrik joaten ziren bataio-bazkarira.

Jaunartzeak ere desberdinak izaten ziren. Egun hartan, gehienetan, ospakizun xume bat egiten zen. Etxean bazkaltzen zuten; eta egun hartako bazkaria, egunerokoarekin konparatuta, berezi samarra izaten zen. Hala eta guztiz ere, sasoi hartako neska-mutikoez egun hura iristeko ilusio handia izaten zuten.

*“Komunixua parrokixan egin naban. Orduan danak egitten zaben. Zortziretan egitten zan komunixua. Larogei bat neska-mutill alkartu giñan komunixua egitteko. Bazkari berezi bat egin genduan egun haretan. Gaur egun baiño estimauagua zan egun haura. Oillo bat hiltzen bazan ere, pozik”.*

**Mariano Elustondo Aizpiri**

Egia esan, jaunartze egunean apenas egiten zen gauza berezirik, baina “Elgoibartarren Esanetan” izeneko programan elkarriketatutako ia pertsona guztiek oso gogoan dute nola bizi izan zuten egun hura.

*“Jaunartzia mojen ospitalian egin genduan, eta ostian, armozua, txokolatia, haura izan zan estraordinarixua guretzat. Bestela, etxian ez zan ezer berezirik egitten. Nahikua zan amak soiñekua eta bestelakuak preparatziarekin. Lehen ez ziran egitten oingo banketiak. Bazkarixa korriente. Guk, lau mutillek ta lau neskak egin genduan, hamaika urterekin”.*

**Sotera Zubiaurre Garitaonaindia**



Lehenengo Jaunartzearen eguna oso berezia izaten zen gure aiton-amonentzat.

Eta haien oroimenetik hainbat gauza desagertu badira ere, beste hainbat gauza ondo gogoan dituzte. Egia esan, inori ere ez zaio ahaztu jaunartze egunean zer nolako jantziak eraman zituzten.

*“Nere komunixua sentzillo samarra izan zan. Zuriz jantzitta jun nintzan, habittua jantzi gabe, hori gerokua da eta. Parrokixan egin naban. Guztira, hirurogei bat neska-mutill izango giñan. Egun haretan etxian bazkari berezixa egin genduan. Beti zaguan zeozer etxian jateko, eta konejo bat edo jan genduan”.*

**Ventura Agirregomezkorta Ibarluzea**

Jaunartze egunean janzten zuten arropa zela eta, bazen ondokoen mesfidantza eta esamesak jasan behar izan zituenik ere.

*“Nere komunixuan mariñel jantzitta jun nitzan. Akordatzen naiz kordoi zurixa eruan biharrian gorrixa eruan nabala, azulari ondo etortzen zitzakolako. Eta nik neure artian: “Esango die zeozer!”. Nere aitta naukan goguan, sozialistia zan eta. Eta, hara, baten batek esan zidan “Aizu, zelan ipiñi dozu kolore gorrixa? Eta nik erantzun nion azularekin ondo geratzen zala. Baiña horrek amorrua eman zidan. 11 edo 12 urterekin egin naban komunixua. Alde batian mutillak gauden, eta bestian, neskak. Baiña ez genduan ospatu.”*

**José Gurrutxaga Ondartza**



Egia esanda, jaunartze eguna ondo finkatuta geratu da gure nagusien oroimenean. Are gehiago, batzuentzat haien bizitzako une berezienetarikoa izan zen hura.

*“Ondo akordatzen naiz nere komunikuarekin. Elgoibarren egin naban, kalian. Hamaika urterekin egin naban. Igual 200 neska-mutill izango giñan, herri guztikuak. Goguan dakat nola jun giñan: traje berri-berrixa jantzitta. Eta egun haretan Elgoibarren konfirmaziua tokau zan. Eta obispua etorri zan. Eta berak eman zigun komunixua guri. Eta ondiokan ere esaten die Elgoibarren: Joxe, akordatzen haiz nola eman zixan obispuak? Nola ez naiz akordauko, ba! Obispuak ematia beti izan da harro egoteko motibua”.*

**Joxe Gurrutxaga Lizarralde**

Aurreko mendearen lehenengo urteetan, ezkontzetan egiten ziren ospakizunak eta gaur egun egiten direnak oso desberdinak ziren. Oso arrunta zen gure herriko bikoteak goizeko 6:00etan edo 6:30ean ezkontzea.

*“Elgoibarren ezkondu nitzan, goizeko seiretan, parrokiatan daguan kapilla batian. Ezkondu eta gero, Donostiara jun giñan eztei-bidaira. Egunian bertan jun eta etorri egin genduan. Kuñatiarekin eta jun giñan, laurok. Trenian jun, eta trenian etorri. Illunduta zaguarian ailegau giñan Aldapa basarrira. Guk ez zakigun Donostia ixa nun zaguana ere, eta horretxegaitik ez genduan Donostiarekin asko disfratau. Traje beltza eruan naban, eta nere gizonak traje marroia, bere amak egindakua. Neria, nik neuk egin naban. Banketia gabian egin genduan Aldapa basarrixan. Ganbaran izan zan, eta 47 lagun bildu giñan. Ordurako asko zan. Manuel Agirre “Gelatxo” ibilli zan soiñua jotzen eta ahizta zaharrena, Frantziska, panderuarekin. Nik ez naban panderua jo, ezta dantzian egiñ ere, lotsia ematen zidan eta”.*

**Juliana Zubizarreta Gurrutxaga**

Ezkondu ostean, jendeak zoriondu egiten zituen ezkon berriak. Ondoren, herriko tabernaren batera joaten ziren bazkaltzera, gertuko senideekin eta lagunekin batera. Aitzitik, ezkontza ospakizunak baserrietan egiten baldin baziren, haiek hiru edo lau egun iraun zezaketen. Kasu horietan, ohikoena zen, bikoteari oparitutako generoarekin, janean eta edanean bapto ibiltzea.

*“31 urterekin ezkondu nitzan Elgoibarko parrokiatan, Gloria Maiztegirekin. Goizeko sei t’erdixetan ezkondu giñan, gero armozau, eta Bilbora jun giñan. Armozau genduan Kondonian, gaur egun plazako arkupiak dagozen tokixan zaguana tabernia”.*

**Mariano Elustondo Aizpiri**

Ondoren, ezkonberriak hainbeste desio zuten eztei-bidaia egitera joaten ziren. Inguruko hiribururen batera joaten ziren, batez ere, Donstia edo Bilbora. Oso gutxitan egiten zituzten astebete irauten zuten bidaiak.

*“Ezkontza-bidaia Bilbora egin genduan. Asko zan Bilbo orduan. Asteazkenetikan igande illuntzera arte egon giñan. Iglesias taxistiarekin jun giñan estazioraiño; trena hartu ta Bilbora. Pentsio batera jun giñan, eta oso ondo pasau genduan. Nik oso ondo ezagutzen naban Bilbo, soldadutzan pare bat urte eman nittuan nik han eta”.*

**Joxe Gurrutxaga Lizarralde**

Edonola ere, eztei-bidaiaren nondik norakoak eta iraupena familia bakoitzaren ahalmen ekonomikoaren arabera izaten ziren.

*“Ezkon-bidaia Panplonara egin genduan, trenez. San Fermiñak ziran, eta eziñ egon han. Zarata haundixa zagan, eta ezin genduanez lorik egiñ, Madridera jun giñan hurrengo egunian edo bi egun geruago. Zortzi egun eman genduzen han, eta handik Bartzelonara jun giñan, beste astebete pasatzeko. Eta Kanariasera juteko asmua ere bagenduan, baiña bero haundixa pasatzen ari giñan, eta nere gizonari esan nion Elgoibarrera bueltatzeko. Ordurako baje haundixa izan zan guria, gitxik egitten zebe hori”.*

**Sotera Zubiaurre Garitaonandia**

Bitxikeria gisa, esan daiteke, soldadutza egiten ari zirela edo Gerrate Zibilean zebiltzala, gure aitonek ezagutu zituzten tokiak ezkon bidaia egiteko ohiko toki bihurtu zirela.

*“Ezkon bidaia Zaragozara egin genduan. Dirua gastau artian egon giñan, 12 edo 15 egun. Pentsio batera jun giñan beste bikote batekin. Andriaren anaixa ezkondu zan, eta eurekin batera jun giñan. Ondo ezagutzen naban nik Zaragoza. Denpora askuan egon nitzan han soldadu, hiru bat urtian edo. Donostiatik jun giñan autobusian”.*

**Juan Lariz Garate**



Eulogio Estarta enpresari elgoibartarraren hileta-elizkizuna herrian gogoratzen den jendetsuenetarikoa izan zen. 1955 urtea.

Senideren bat hiltzen zenean ere gure herriko familiak mahaiaren bueltan biltzen ziren. Oturuntza horri "entierroko bazkarixa" deitzen zioten. Bazkari hartan jende asko batzen zenez, tabernaren batera joaten ziren. Aurrekoaz gain, beste oturuntza bat ere egiten zuten, etxekoren bat hiltzen zenean. Bertan, "entierroko bazkarira" joan zen antzeko jende kopurua elkartzan zen. Hileta egin eta bederatzi egunetara egiten zen. "Honra janak" deitzen zitzaion, eta dagoeneko, janari eta edanari dagokion kapitulan aipatu dugu oturuntza horri.

*“Orduan usatzen zan baten bat hiltzen zanian, elizan mezia egoten zan egunero, bederatziz egunez, eta haura amaitzen zanian banketia egitten zan kalian, taberna batian. Hori gero kendu egin zaben, eta pake edarra, gaiñera. Lehen nahiko arazo, eta gaiñetikan gastu asko izaten zan”.*

### **Mariano Elustondo Aizpiri**

Dirudienez, heriotza baten ostean egiten ziren bazkariak bertako, eta batez ere, baserri auzoetako ohituren parte ziren.

*“Baten bat hiltzen zanian basarrittarrak bazkarixa egitten zeben entierroa juten zan jendiantzako, honretan. Kaleko jendiak ez zaban egitten, entierroa egin, eta akabo holako gastorik gabe”.*

### **Teodosia Iriondo Garate**

Beste alde batetik, Elgoibarkoa bezain gizarte tradizional batean oso ohikoak izaten ziren sinismen paganoak. Oro har, gurasoak izaten ziren sorginei eta mitoei buruzko istorioak eta ipuinak euren seme-alabei kontatzen zizkietenak. Horretaz gain, aiton-amonek ere zeregin garrantzitsua izaten zuten tankera horretako gauzak irakasterako orduan.

*“Jendiak esaten zaban kanpora juten ziranian hanka hotsak entzuten zittuela, hanka zaratia entzuten zebela. Nere amak, Agustinak, nere aita Domingorekin kaletik bueltan zatorre-nian hanka hotsak ere entzuten zittuala esaten zaban. Eta aittak kasorik ez egitteko esaten zion, txakurren bat pasauko zala ondotikan eta. Nik ez dakitt gizurrak ala egixak ziran, baiña nere gurasuak ez zeben gizurrik esaten”.*

### **Juliana Zubizarreta Gurrutxaga**

Gure aiton-amonen garaian sinesmen pagano askori buruz hitz egiten zuten. Hala ere, kontakizun haietako gehienak haurrek baino ez zituzten aintzat hartzen.

*“Gauza horrek lehen asko entzuten ziran. Gure aitta oso zalia zan holakuak kontatzen. Neguan geundenian ba... gaba luzia, eta afaldu eta gero errosarixua errezau ixilikan. Eta gero, su onduan, aitta egoten zan sorgiñen kontuak esaten, ama iñoiz ere bai, baiña gehixenetan aitta. Gu haretxeri entzuten, aho zabalik. Txikixak giñanian sinisten genduan. Gero, ez”.*

### **Joxe Gurrutxaga Lizarralde**

Zoritxarrez, frankismoaren garaian, utzi egin zitzaion, gure herriko etxeetan, tankera hartako sinismenak transmititzeari.

*“Sorginkerixak esan bai, eta entzuten ziran. Horrek danak pistoliak desaparezittu zittuan”.*

### **Markos Arregi Iriondo**

Ezin, bada, erlijioari eskainitako kapitulu honi amaiera eman Santa Klarako klausura komentu zaharra aipatu gabe. Han bizi ziren mojen bizimodua misterio handia zen sasoi hartako elgoibartarrentzat; izan ere, klausurako kongregazio baten parte zirenez, ez zuten komentuaren esparrutik irtererik.

*“Baten bat bisittia egittera juten baldin bazan, presuak bezela zan, erreja tartian. Handik hitz egin. Eta han, testiguekin bezela, beste monja batzuen bistan; eta holan”.*

**Joxe Gurrutxaga Lizarralde**



Santa Klara komentu zaharreko mojek klausura-botoa egiten zuten, eta ez ziren handik irteten.

Edonola ere, herritarrek oso begi onez ikusten zituzten mojek betetzen zituzten zereginak. Mojek bazuten pertsona bat herriko dendetan erosketak egin eta elgoibartarren lan eskaerak jasotzeko.

*“Santa Klarako konbentu zaharrian “Sindi” esaten ziuen bat zagan, eta harek egiten zittuan kaleko erreka guztixak. Baiña zuk monjekin berba egin bihar baldin bazenduan, ikusi gabe egin bihar, rejillak zaukazen aparato batetik egin bihar berba, ikusi gabe. San Lorentzo baillarakua zagan hor, Zuluetakua, Rosario. Erropia errepassau egiten zebeñ han, eta halako errepassuak egiten guk ez zakigun, eta hara eruaten genduan. Rejillak zittuan bentanilla haretan haretzekin berba egin. “Sindi” harekin egiten genduan berba”.*

**Maria Epelde Arriola**

## Esker Ona

Nire esker onik beroena lan hau egiten lagundu didaten guztiei: Elgoibarko Udalari, Barreni, Elgoibarko Izarrari, Oihana Tarraguali, Koldo Lizarralderi, Pello Arrietari, Udal Liburutegiari, Nerea Lodosori, Kristina Zuatzubizkarri, Maritxu Loiolari, Nerea Ezkurrari, Blanca Salegiri, Jesus Mari Makazagari, Yulen Zabaletari, eta nola ez bada, "Elgoibartarren Esanetan" programaren barruan egindako elkarriketetan parte hartu duten 21 elgoibartarrei. Eskerrik asko, berriz ere, denei.

## Bibliografia

- FESTA HERRIKOIAK ELGOIBARREN**, Koldo Lizarralde Elberdin.  
Elgoibarko Udala, 1995.
- KALEGOENGO FRONTOI ZAHARRA**, Koldo Lizarralde Elberdin.  
Elgoibarko Udala, 2003.
- ELGOIBARKO ONDARE HISTORIKO ARTISTIKOA: Arkitektura Zibila**, Pello Arrieta Soraiz. Oñati, 1996.
- ELGOIBAR DE LAS FERRERIAS A LA MAQUINA HERRAMIENTA. MAESTROS REJEROS, RELOJEROS, ARMEROS**, Luis M<sup>a</sup> Ecenarro Osoro.  
KUTXA fundazioa, 1996.
- APUNTE ETNOGRAFIKOAK I**, Koldo Lizarralde Elberdin.  
Elgoibarko Udala, 1994.
- APUNTE ETNOGRAFIKOAK II, Igarotze Errituak**, Koldo Lizarralde Elberdin.  
Elgoibarko Udala, 1997.
- ELGOIBAR DANTZAN**, Oier Araolaza Arrieta, Pello Arrieta Soraiz, Koldo Lizarralde Elberdin, Jose Inazio Sarasua Garate.  
Ongarri Kultur Elkartea, 1999.
- MAKINAK ETA GIZAKIA. Gida historikoa**. Patxi Aldabaldetrekua Saiz.  
Makina-Erremintaren Museo Fundazioa. 2000.

*Oharrak:*

- "Elgoibartarren Esanetan" Elgoibarko Udalak argitaratutako azterlana da, non estreinakoz gure herriko euskara jasota geratu den. Jesus Mari Makazaga filologo elgoibartarrek onginahi hutsez egokitu ditu aipu horiek guztiak gure herriko hizkerara.

- Liburu honetan agertzen diren argazkiak elkarriketatuek, Udal Liburutegiko fondoak eta ElgoiBARREN aldizkariak utzitakoak dira. Argazki horietariko asko Azkue familiak ateratakoak dira.

## ELKARRIZKETATUAK / ENTREVISTADOS



Zubizarreta Gurrutxaga Juliana  
1910/02/22 - 2006/07/21



Agirregomezkorta Ibarluzea Ventura  
1916/07/14 - 2005/06/27



Arregi Iriondo Markos  
1913/05/12 - 2003/01/27



Iriondo Garate Teodosia  
Jaiotze data: 1907/04/07



Elustondo Aizpiri Mariano  
Jaiotze data: 1912/10/06



Aginaga Madariaga Teresa  
1918/10/15 - 2002/07/10



Andonegi Sustaeta Nikasi  
1915/12/14 - 2005/08/28



Artetxe Egia Pedro Joxe  
1916/02/21 - 2004/01/08



Bergaretxe Ardanza Felisa  
Jaiotze data: 1915/04/19



Zubiaurre Garitaonaindia Sotera  
1908/04/22 - 2004/09/18

## ELKARRIZKETATUAK / ENTREVISTADOS



Odria Osoro Joxe  
Jaiotze data: 1913/01/17



Epelde Arriola Maria  
Jaiotze data: 1916/12/03



Acosta Calvo José Manuel  
Jaiotze data: 1918/11/22



Maiztegi Iriarte Ramon  
1921/07/05 - 2005/03/07



Diego Aranburu Eugenio  
1919/08/16 - 2003/10/01



Irizar Goiburu Juliana  
Jaiotze data: 1912/11/07



Lariz Garate Juan  
Jaiotze data: 1918/12/31



Gurrutxaga Ondartza José  
Jaiotze data: 1921/09/15



Gurrutxaga Lizarralde Joxe  
Jaiotze data: 1919/02/04



Unzueta Iriondo  
M<sup>a</sup> Rosa: 1919/10/19  
M<sup>a</sup> Josefa: 1922/03/11